



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko abuztuaren 24an

65 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Hainbat lanetarako erabiltzen diren helikopteroei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Foru Administrazioaren lanpostuetan euskararen erabilerari eta baremazioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Santa Lucíaoko segurtasun biltegia zaintzeko kontrolei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Biofruit enpresak Buñuelen lantegi bat zabaldu ez izanari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Iparreko autobiako lan osagarriak zertan diren jakiteko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Eguesko Udalarekin Sarrigurengo ekohiria sortzearen lortutako akordioa betetzeko sistema aldatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Herri ondasunak arautzeko egungo sistemari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Ilundaingo Haritz Berri granja-eskolan egindako laboreei eta lortutako emaitzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Autonomia erkidego mugakideetako gobernuekiko lan dinamikari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Garraioaren Hiriko erreka hobetu eta estaltzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Nafarroako Gobernuak lur kutsatuen inbentario berekia duen jakiteko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Altsasuko Galdan, SA enpresak isuritako ke toxikoei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Trafikoaren gaineko eskumenak eskuratzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Aurrekontuko dirulaguntzak jaso ez dituzten hezkuntza, osasun eta gizarte ongizatearen alorretako elkar-teei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- SPI Navarra Virtual, SA sozietatea eratzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Aranguren eta Eguesibarko udalez gaidiko planari aurkeztutako alegazioen ebazpenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).

- Nafarroako Gobernuaren argitalpenen fotokonposizio eta filmazio lanen (1, 2, 3, 4 eta 5. sortak) esleipenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Biltzar jauregi eta auditorioaren obrei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Eskualdeko hirigintza arauen tramitazioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Nafarroako Gobernuko giza baliabideak kudeatzeko sistema integralaren mekanizazioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- AHTa dela-eta Aragoiko Gorteeekin lortutako akordioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Altsasuko ingurabideko biaduktuko bi zutoin desarmatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).

F saila:
GALDERAK

Hainbat lanetarako erabiltzen diren helikopteroei buruzko galdera*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak hainbat lanetarako erabiltzen diren helikopteroei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko maiatzaren 15eko 40 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera batzuk egin ditu. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Galdera zuzendu zuen Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeko eledunak dio "Berriki izan dugu Nafarroan suak itzali, erreskate lanak egin, trafikoa zaindu eta eriak eramateko zerbitzuaren enpresa adjudikazio-hartzaileak, Helimar, S.A. enpresak, alegia, erabiltzen dituen helikopteroen irregulartasun eta akats larrien berri", eta hori ez da hala. Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak eta iritzi publikoak berriki ezagutu dutena, egiaz, LAB sindikatuko zenbait ordezkari egindako adierazpenak dira, luze eta zabal jasoak komunikabideren batean. Ausarkeriara hurbiltzen diren adierazpen merke horietan Helimar, S.A. enpresa adjudikazio-hartzaileari hainbat irregulartasun leporatzen-zizkioten, zehazki Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuan dituen helikopteroen mantentze eta erabiltze lanetan, irregulartasun horien erantzule nagusi Nafarroako Gobernua zela erranez.

LAB sindikatuko ordezkarien adierazpenak eta iritziak Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldea-

rentzat erabat sinesgarriak direla zalantzan jartzerik ez dagoela badirudi ere, sindikatu horren gai honen inguruan dioena jakiteak ez du inolaz ere biderik ematen baieztatzeko, ezta zeharka ere, salatutako egintzak egiazkoak direla, Parlamentuko Talde horren eledunak hala pentsatzen badu ere eta esaldi horretan horixe ematen badute ere aditzera; era berean, ez du biderik ematen pentsatzeko herritar guztiak egitate horiek egiazkoak direla uste dutela, nahiz eta esaldiaren hasiera generikoak hori esan nahi duen, Euskal Herritarrok taldeak ulertu behar bailuke herritar guztiak ez dutela haren eledunek bezala pentsatzen.

Gainerakoan, galderaren sarreran egiten diren bestelako adierazpenek ere, hala nola, "APYTHELek berak ere salatu du, haren lehendakariaren bidez, Nafarroako Gobernuko Barne Departamentuak errealtatea isilean gordetzen duela" esateak, iritzi publikoarengan nahasbidea sortzea baizik ez dute helburu, sigla horien esanahia ez jakiteak ekarriko baitu horien atzean daudenei ematea aireko zirkulazioaren antolamenduan benetan ez duten garrantzia edo protagonismoa.

APYTHEL siglak helikopteroen merkataritzako pilotuen eta mantentze lanetako teknikarien Espainiako Elkarte Profesionalari dagozkio; elkarre hau, esparru nazionalekoa –guk dakigula, Nafarroan ez baitu inolako lokalik irekita ordezkari gisa–, Barne Ministerioko Elkarteen Erregistro Orokorrean 1999ko maiatzaren 20an inskribatu zela ageri da, Konstituzioan onarturiko elkarte eskubidean oinarriturik eta elkarteei buruzko abenduaren 24ko 191/1964 Legean aurreikusitakoaren babesean.

APYTHELen estatutueta ezarritako helburuen artean badaude zenbait eduki frogatzen dutenak elkarre afera sindikaletan aritzera bideratu nahi dela. Horrez gain, 2000ko maiatzaren 11n APYTHELek lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu zuen Langileen Komizioak (CCOO) sindikatuko Komu-

nikazio eta Garraioen Federazioarekin, zeinetan haxe adierazten baitute bi alderdiek: abiazio zibileko lanbide ezberdinen arteko hartu-emanak areagotzeko premia, helikopteroetako tripulante pilotuen eta teknikarien legezko eta berariazko erreibindikazioak gainerako langileenei gehituz; bestalde, hitzarmen haren bidez erabaki zuten "sindikatuari taldeen interesak babestu eta haien alde egiteko ahalmena ematen dien konstituzio-eskubidean oinarriturik, CCOO eta APYTHELek batera eta modu solidarioan jardunen dutela askatasun sindikalaren eskubidearen ukazioaren kontra" eta "Batzorde Misto bat eratuko dutela, elkar-teen bina kidek osaturik..."

Egia esateko, gauzak diren bezala kontatzearen eta APYTHELekiko nola haren helburuekiko begirune osoarekin, aipatu behar da elkarte hau, sortu zenetik, buru belarri sarturik ibili dela Espainian aritzen diren helikoptero konpainia ia guztien zerbitzu ematean gertatzen diren ustezko irregulartasunak salatzen; salaketa horiek Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusian eta kontratazioak egin dituzten administrazio eta erakunde publikoetan aurkeztu ditu; era berean, Lan Ikuskaritzan salaketak aurkeztea sustatu du. Mota askotako enpresak, batzuk handiak, HELICSA eta HELISURESTE, adibidez, -bien artean Espainiako helikopteroen merkatuaren % 69ko kuota hartzen dute-, edo txikiagoak, HELIMAR, esaterako -merkatuaren % 4arekin-, APYTHEL-en salaketen jomuga izan dira, eta Andaluzia, Aragoi, Kanariar Uharteak, Gaztela eta Leon, Zeuta, Extremadura, Valentzia, Euskal Autonomia Erkidegoa (Ertzaintza) eta, noski, Nafarroako Foru Komunitatea, APYTHEL-en erreibindikazio eta salaketen hartzaileak.

Salaketak jaso dituztenak hainbeste eta denak desberdinak izatea ulergarria da. Foru Komunitateko Administrazioari dagozkio zuzenean kontratatutako zerbitzuaren ikuskaritza eta zainketa lanak, hau da, kontratua haren klausulei eta kontratu egileak hura ulertzeko emandako jarraibideei lotuz betetzen dela ziurtatzea. Aitzitik, aireko zirkulazioari dagozkion lan edo gizarte arloko eskumenak betetzeko zehapen espedienteen kasuan, ikuskaritza, salaketa eta izapidaketa ahalmenez baliatu behar diren administrazioak beste batzuk dira.

Honaino ailegatuta, zilegi da gogoraraztea Kontuen Ganbarak Foruzaingoaren 1998ko ekitaldiko Aurrekontu Programa fiskalizatu zuela, eta programa horretan helikopteroekin emandako aireko zerbitzuen ordainketari zegozkion aurrekontuko kontsignazioak ageri zirela. Aurrekontuaren exekuzioa zuzena dela egiaztatzeaz gain, pro-

gramaz arduratzen diren unitateek ezarritako barne kontroleko sistemek legeak betetzen dituzten begiratzea, eta sistema horiek aztertu eta ebaluatzea -eta, beharrezkoa izanez gero, hobetzeko gomendioak proposatzea-, dira fiskalizazioaren helburuak, bai eta haren exekuzioan erdietsitako eraginkortasun eta ekonomia mailak aztertzea.

Alabaina, Kontuen Ganbarak 1999ko abuztuaren 30ean luzatutako behin betiko txostenean ez zen inolako iruzkin edo gomendiorik ageri helikopteroen zerbitzurako kontratua betetzeari dagokionez, ez eta horien jardunari dagokionez ere, zalantzarik gabe auditoreek ez zutelako horretarako arrazoirik aurkitu salbu, Foruzaingoaren Programatik izandako gastu gehiegizkoaren eta gastua Barne Zuzendaritza Nagusiaren unitate organiko desberdinen artean, bakoitzari egiaz emandako aireko zerbitzuen arabera -Sultaltze eta Salbamendu Zerbitzua aipatzen zuten, zehazki- hobeki banatzeko komenigarritasunaren inguruan adierazitakoak; gai edo gomendio horri behar bezalako erantzuna eman zaio eta bete egin da egun Nafarroan indarra duten 2000ko Aurrekontu Orokorren exekuzio prozesuan.

Bestalde, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren zerbitzu teknikoek kontratuaren betetzeaz egiten duten kontrolak ez ditu frogatu LABek salatu eta hegaldien segurtasuna kalte lezakeen irregulartasunik bat ere; beraz, esan daiteke, zuhurtziaz eta zentzuz, kontratatutako aire zerbitzuak seguruak direla.

Horrekin guztiarekin ere, honakoa izenpetzen duen kontseilaria jabeturik dagoenez aireko zerbitzuak erabiltzearen arriskuaz, eta horiek erabiltzen dituzten funtzionarioek segurtasuna izan dezaten, Foru Komunitateko Administrazioak Helicópteros del Mare Nostrum, S.A. (HELIMAR) enpresarekin zerbitzuak emateko izenpeturiko kontratuaren exekuzioaz jarraipen zorrotz-zorrotza egin dadila dago aginduta, eta esan dezakegu aireko baliabideak eta betetzen dituzten zerbitzuak direla Barne Zuzendaritza Nagusiak kanpoko enprekin kontratatzen dituenetan ikuskatze eta esku-hartzea gehien hartzen dituztenak.

Baina bistan dago ezbaian dagoena bezain sentsiblea den zerbitzuaren inguruan arreta handiaz ibili behar dela salaketak egiterakoan, eta horiek eragin dituzten irregulartasunak edo egitateak egiaztatu behar dira, galderaren hasieran iradokitzen den bezalaxe; beraz, Euskal Herritarroren eledunak ez du ongi jokatzeko ziurtat hartzen duenean kontseilari honen erantzuna izanen dela gai honetan ez duela inolako erantzukizunik. Izan ere, kontseilariaren aurreneko erantzukizuna parlamentarioen galderari eta Euskal Herritarrok tal-

deak bertan azaldutako gaiei erantzutea baita, nor berearen erantzule izanik, jakina.

Horrenbestez, honakoa adierazten du:

1. Zein dira hegazkinen ezaugarri teknikoak?

Iruñean aritzen diren aireontzien funtsezko ezaugarriak, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak (Sustapen Ministerioa) Aireko nabigagarritasunaren ziurtagirien, ezaugarrien agirien eta aireontzien Erregistroko matrikula ziurtagirien arabera, hauexek dira:

Helikoptero nagusia: EUROCOPTER egilea, ECUREUIL modeloa, AS-350-B2 motakoa, 2886 serie zenbakia, 1995ean egina, EC-GDP matrikula.

Erreserbako helikopteroa: EUROCOPTER egilea, ECUREUIL modeloa, AS-350-B2 motakoa, 3837 serie zenbakia, 1995ean egina, EC-GDL matrikula.

Helitanke helikopteroa: BELL/GARLICK egilea, UH-1H (205) modeloa, 66-01148 serie zenbakia, 1966an egina, EC-GIZ matrikula.

Lehendabiziko biak monoturbina motako aireontziak dira, pilotua eta sei bidaiarientzako tokiak dute, eta gehienez garraiatu dezaketen zama, erregaia barne, 1079 kilokoa, kruzeroko abiadura –gehieneko zamarekin– 226 km ordukoa da eta autonomia –gehieneko kargarekin eta kruzeroko abiaduran– 3 ordu eta 30 minutukoa da; Aireko Ohiko Nabigagarritasunaren ziurtagiria dute, eta saila edo baimena erabilera hauetakoa da: Bidaarien Garraio Publikoa, Pertsonen Garraio Publikoa, Aireko lanak (instrumentu bidezko ikerketa eta errekonozimendua, behaketa eta patruilatzea, komunikazioak eta publizitatea, aire turbulentsiak sortzea eta larrialdietako operazioak) eta eskola; hegaldietarako baldintzei dagokienez, baimendurik daude ikusizko hegaldietarako (V.R.F.), gaueko hegaldietarako eta eskolarako, arauzko betekizunen menpe, betiere.

HELITANKE helikopteroa bi turbinakoa da, pilotua eta hamabi bidaiari eramateko adina toki du, azpiko bildegia 1260 kilokoa da eta 2 ordu eta erdiko autonomia du; aireko nabigagarritasun berezi murriztuaren ziurtagiria du, eta saila edo baimena aireko lanetarako kategoriakoa da (modalitate hauetan: aireko tratamenduak, ura helikopteroaren bidez botatzea, materiala garraiatzea, behaketa eta patruilatzea, eraikitze laguntzak, larrialdiak eta langileak eramatea); hegaldien baldintzei dagokienez, ikusizko hegaldietarako (V.R.F.) baimena du, arauzko betekizunen menpe, betiere.

2. Zein neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak hegaldietarako segurtasun arauak betetzen direla ziurtatzeko?

Kontrataziorako lehiaketaren baldintza pleguak arreta handiz prestatu ziren, antzeko kontratueterako beste zenbait autonomi erkidegotan erabilitako kontratazio espedienteak aztertu eta landu ondotik, erabiltzaileek (bereziki Babes Zibila eta Suhiltzaileak) eskatutako iradokizunak eta betekizunak kontuan hartuz, eta aurreko kontratazioen oinarritzat hartutakoak hobetuz; eskura izan beharreko hegaldi orduen kopurua zerbitzuaren beharren arabera doitu da.

Kontratua behin esleiturik, exekuzioaren hasiera-hasieratik kontrolatu da hitzez hitz betetzen zela, eta aldiro eskatu izan da aireko nabigazioaren araudian ezarritako zehaztapenak betetzeari dagokionez zenbait alderdiren ingurukoak aurkeztea.

Gaztigatu gabeko hainbat ikuskapen egin dira –25 gutxienez kontratazio aldiari–, operazio baseetan (Miluze eta El Plano –Tafalla–) eta instalazioak, langileak eta ekipoak aztertu dira, lanegunetan nola jaiegunetan, horren akta egin eta kontratazio hartzaileari bisitaren emaitzak eta aginduak edo iradokizunak jakinarazi zaizkio, bai eta, ondoren, betetzen direla zaindu ere.

Hegaldien oharra aztertu dira eta, beharrezkoa izanez gero, informazioa osatu da behar diren neurri zuzentzaileak hartu baino lehen. Zerbitzuak hobetzeko ekimenak eragin dituen gertaera bakoitzaren inguruan idatzizko espediente bat egin da –8 aldiz, gutxienez–, informazio gehiago galdatzea eta enpresari neurri berriak, teknikoak zein antolaketakoak (klausulen plegurako argibideak, egindako zerbitzuen gaineko txostenak, eguzki sartu eta ateratzen taulak banatzea tripulazioei eta erabiltzaileei, koordinatu geografikoen edo UTMen erabilera, Nafarroako herri guztien koordinatu guztien zehaztea GPS, kokapenerako sistema globala, erabiltzeko, matxuren gaineko txostena, amildegien inguruko hegaldiak, pilotuei ohartaraztea hegaldiko gorabeherak ager ez ditzaten, etab.) aplikatzeko laguntza eskatzea ekarri dutenak.

Astean behin egindako zerbitzuen txosten banakatuak, pilotuak berak eta zerbitzuaren erantzule den funtzionarioak sinatuak, entregatzea eskatzen da, hegaldian gertaturiko gorabeherak adierazirik. Txosten horiek enpresa adjudikazio hartzaileak Barne Zuzendaritza Nagusiko Udaltzaingoen Lankidetzara, Segurtasun eta Koordinazio Zerbitzuari bidaltzen dion asteko zerbitzuen zerrendan ageri direnekin erkatzen dira.

Egindako zerbitzuen zerrenda urtean behin, edo hala eskatuta, igortzen zaie, zerbitzu erabil-tzaileei: suhiltzaileak, foruzaingoa eta babes zibi-la.

Enpresak aldiro entregatzen ditu Abiazio Zibi-leko Zuzendaritza Nagusiak eginbidetutako aireko nabigarritasunaren ziurtagiriak, egindako ikuska-penak adierazita eta horien ondorioz, ziurtagiriaren balio-data ere.

Enpresak alde zuzenetik jakinarazten ditu posta elektronikoen bitartez, aurreko lerrokan aipa-tutako zerbitzuko tripulazioan izaten diren aldake-tak –pilotuak eta mekanikariak– (kontratazio aldian –2000ko maiatzaren 31 arte– pilotuen 59 txandatzeko eta mekanikarien 25 txandatzeko izan dira).

Helikopteroendako Miluzeko azaleraren babes eta segurtasun neurriak eta hangareenak hobetu eta ate automatikoak ezarri dira. Baimendutako langileek kontrolatzen dituzte sarbideak, Foruzain-goak betetzen dituen zainketa errondegain.

Barne zuzendari nagusiak zenbait bilera egin ditu suhiltzaileen, foruzaingoaren, babes zibilaren eta Koordinazio, Segurtasun eta Udaltzaingoen Korrdinazio Zerbitzuaren arduradunekin, aireko balibideak erabiltzearen inguruko irizpideak bateratzeko; beste gai batzuen artean, honakoak zehaztu dira: enpresaren betebeharrak langileen zerbitzuari eta eginkizunei dagokienez, aireontzi bakoitzak bete beharrekoak berriz definitu direla, eta halaber, helikopteroen jarduna –alerta maila desberdinak ezarri dira–, jarduteko lehentasuna eta bitarteko laguntzaileen erabilera (garabia, bereziki); horren guztiaren berri HELIMARreko operazioen buruari eman zaio.

3. Indarra duen legediaren arabera, helikopte-ro hauek ibiltzeko baimena dute 5.000 biztanle baino gehiagoko hiriguneeen gainean?

Bai.

Aireko Zirkulazioaren urtarilaren 31ko ED73/1992 Erregelamenduak eta 2/1997 Zirkular Operatiboak (Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren 1997-07-22ko Ebazpena) hiriguneeen gaineko hegaldietarako ezarri dituzten murrizketa baka-rrak 50.000 biztanletik gorako hiriguneei dagozkie, gune horien gainean ezin izanzen baitira ibili moto-

re bakarreko helikopteroak, ebakuazio eta osasun garraioeko larrialdietan izan ezik.

4. Gaueko hegaldiak egiteko baimena dute?

Helikoptero nagusiek eta erreserbakoek bai, arauzko baldintzen menpean betiere, kontratazioa zuzentzen duen baldintza administratiboan pleguak berak eskatzen duen moduan. Baimenak Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren Hegal-dietako Segurtasunerako 6. Ordezkaritzak luzatu-tako ezaugarrien orrietan ageri dira.

HELITANKE helikopteroak, uztailaren 1etik urriaren 15a bitarte basoko suteak itzaltzeko bai-zik erabiltzen ez denak, ordea, ez.

5. Zein dira helikoptero bakoitzak bere gain dituen betebeharrak zehatzak?

Funtsean, "Helicópteros del Mare Nostrum, S.A." (HELIMAR) enpresa beharturik dago, kontratu bidez, helikoptero zerbitzuak ematera Barne Zuzendaritza Nagusiaren eginkizunekin zerikusia duten operazioetan laguntzeko, kontratuan eta kontratazioa zuzentzen duen administrazio klau-sula partikularren pleguan ezarritakoei estuki lotuz; horretarako, bere gain hartzen du honako hauek –kontratazio aldi osoan zehar– Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren eskura edukitzeko betebeharrak: EUROCOPTER markako helikoptero bat, ECUREUIL modelokoa, AS-350-B2, bai eta –uztailaren 1etik urriaren 15a bitarte soilik– suteen kontrako helikoptero bat, BELL-205/204 (UH-1H/B) HELITANKEA, ura bota eta langileak edo suak itzaltzeko langile taldeak eramateko.

Helikoptero bakoitzak bete beharreko eginkizu-nak honakoak dira ⁽¹⁾:

a) ECUREUIL helikopteroa, AS-350-B2.

– Bizitza arriskuan dagoen larrialdiak.

– Garabia erabiliz egin beharreko erreskateak eta maniobrak.

– Basoko suteen itzalketa zaindu eta zuzen-tzea.

– Basoko suteak itzaltzea bambu bucket edo sabeloko biltegia erabiliz.

– Patruilatzea.

(1) Berritu eta antolatuta egin ziren, eta bildurik daude Barne Zuzendaritza Nagusiaren egoitzan 1999ko ekainaren 2an aireko balibideen erabilera jarraibideak eta lehentasunak ezarri eta zerbitzuak koordinatzeko egindako bileran. Bilera hartan parte hartu zuten Barne zuzendari nagusiak berak, Suhiltzaileen Partzuergoko zuzendari kudeatzaileak, Su-Itzaltze eta Salbamen - du Zerbitzuko zuzendariak, Foruzaingo buruak, Babes Zibileko Zerbitzuaren zuzendariak eta Barne Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren zuzendariak.

– Bestelakoak, aldez aurretik programatuak.

b) BELL/GARLICK helikopteroa, UH-1H (205) modelo

- Basoko suteak itzaltzea, ura jaurtikiz.
- Suak itzaltzeko langile taldeak eramatea.
- Materiala garraiatzea.

Eginkizun hauek guztiak makina batekin zein bestearekin, egunez eta ikusizko hegaldian (VFR) egiten dira.

Hortaz, HELIMAR enpresa beharturik dago bere baliabideak modu egokian antolatzea aireontzia 10 minututan, gehienez, aireratu ahal izan dadin, eguzkia ateratzen denetik sartu bitarte.

Aipatutako eginkizunetakoren bat gauze egiteko aukera teknikoak oso mugaturik daude. Haste-ko, egin beharreko lanen izaera eta tripulazioaren, bidaiarien eta hirugarrenen segurtasuna direla-eta, baztertu behar dira garabia erabiliz egin beharreko erreskate eta maniobra guztiak, bai eta basoko suteak zaindu eta itzaltzearekin zerikusia duten guztiak, beraz, helikopteroen gaueko jarduna, balizkoa, bizia arriskuan dagoen larrialdietara eta patruilatzera mugatuko litzateke, praktikan, eta betiere hegaldi horien jatorria eta destinoa helipuerto balizatuak balira eta aireko nabigazioaren kontrol dorreen eremuan eginez gero.

Ondorioz, kasu bakan batzuk kenduta, hegaldiak gauze egiteko behar diren baldintzak ez direnez, oro har, suertatu, edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren beraren kargu jarri behar denez helikopteroen gaueko jarduna segurtasunez betetzeko funtsezkoak diren zerbitzuen aktibazioa, HELIMAR enpresari sekula ez zaio eskatu langileen eta materialen baliabideak gaueko hegaldietarako antolatzea, ez noizbehinka, ez eta modu iraunkorrean ere, beti ulertu baita baliabideen antolaketa hori, administrazio klausula partikularren pleguan aireratzeko ezartzen duen epea ahalbidetuko lukeena, eskatzea zilegi litekeela, soilik, Administrazio kontratu egileak gaueko hegaldiak legezkoak izateko behar diren erabakiak, haren eskumenekoak, betetzen dituen unetik.

Nolanahi ere, aireontziak gauze hegan ibiltzeko modua balego ere, helikoptero nagusia, ECU-REUIL, AS-350-B2, EC-GDP matrikulakoa, baino ez luke ukituko, eta inolaz ere ez HELITANKEA, BELL/GARLICK, UH-1H modelokoa (205), EC-GIZ matrikulakoa, haren espezializazioa dela-eta egunez bakarrik aritu baitaiteke.

Horrenbestez, atera beharreko ondorioa da helikoptero nagusia ibil daitekeela gauze, baina

larrialdi zehatz batengatik, arrisku egoera toki askotara zabaltzeagatik edo aparteko hondamendiarengatik babes zibileko planak abian jartzen badira. Gauze aritzeko erabakia hartzeko proiektatzen diren zerbitzuen eta hegaldiaren planaren ezaugarriak aztertu beharko dira aurretik, eta azkenean, kontratu hartzaileari errekerimendua luzatuko zaio, tripulazio eta aireontzia prest edukitzeko; berari dagozkion zehaztapenak bete beharko ditu, aldian behin edo maiztasun zehatz batez, gauze aireratzeko ezarritako modu eta epeetan.

6. Zenbat pertsona aritzen dira hegazkin bakoitzean pilotatzen eta mekanikan?

Uztailaren 1etik urriaren 15era bi pilotu eta mekanikari bat.

Gainerakoan, pilotu bat eta mekanikari bat.

7. Pilotuek beren gain dituzten lanak egiteko gaitasun teknikoa dutela bermaturik dago?

Bai. Helikoptero Merkataritzako pilotuaren titulua dute guztiek edo Helikoptero aireko linearen garraio pilotuarena, Foru Komunitatean zerbitzuan dauden makinatarako gaitasunak dituzte, eta esperientzia dute erreskateak egiten eta basoko suteak itzaltzen.

Adibide gisa esan daiteke 1999. urteaz geroztik helikopteroetatik pasa izan diren zortzi pilotuetako bakoitzak 3.200 ordu baino gehiago egin dituela hegaldietan eta batera 4.000 hegaldi-ordutako batez besteko esperientzia dutela.

8. Hegaldietako larrialdietarako prozeduretan trebatzeko aldizkako entrenamendurik egiten al dute?

Lizentzia berritzeko azterketak eta hegaldiko larrialdietarako prozeduren inguruko praktikak interesatuaren eta enpresaren arlokoak dira, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak onetsitako Operazioen Oinarrizko Eskuliburuan xedatutakoaren barrenean, eta ez dira inondik inora ere Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ardurakoak; eta, noski, ez dira haren kargura finantzatuko.

Nafarroan aireontziek jarduteko tripulazioaren eta profesionalen (foruzainak, suhiltzaileak eta osasun arloko langileak) prestakuntzaz den bezainbatean, berriz, Barne Zuzendaritza Nagusiak mota askotako praktikak egitea sustatzen du:

– 1998ko maiatzaren 5etik 13ra, entrenamendu programa bat egin zen tripulazio, osasun arloko langile, suhiltzaile eta segurtasun indarrentzat, helikopteroetan eriak eta istripuak jasandakoak garraiatzeko. Programak eduki teoriko eta praktikoak izan zituen, eta simulazioak eta helikopteroa

eta anbulantziak batera erabiltzeko operazioak ere egin ziren.

– Egun, diseinaturik dago beste praktika ziklo bat egitea, hiriarteko bideetan eta landa eremuetan gertatzen diren istripuetan esku hartzen duten langileak eta tripulazioa trebatzeko.

– Kontratazioaldi osoan zehar eta gaur arte, 38 ariketa praktiko egin dira Nafarroako toki askotan, eta horietan parte hartu dute helikopteroek eta Suhiltzaileen Partzuergoko mendi eta urpeko erreskate taldeek, Foruzaingoak eta osasun arloko eta SOS Nafarroako langileek.

9. Pilotuek ekipamendu egokia dute beren lana egiteko: sukontrako ehunezko lan-jantzia, hegaldietarako kasko bisoreduna, botak eta eskularruak?

Kontratuan ez dago aurreikusirik horrelakorik.

Edozein kasutan, sektorearen erregulazioaren, interesatuen eta enpresaren eremukoak dira gai horiek.

10. Helikoptero hauek erabiltzen dituzten langileen aseguruaren estaldura zein da?

Suhiltzaileen Partzuergoak eta Foruzaingoak istripuetarako poliza bana dute izenpeturik, 8 milioi pezetako kalteordaina aurreikusten dutenak heriotza gertatuz gero, 16 milioi pezetakoa erabateko ezgaitasunaren kasuan; ez dituzte baztertzeko aireko baliabideetan gertatutako istripuak.

Aireko zerbitzuak emateko kontratatutako enpresari dagokionez, bermaturiko estaldurak hauexek dira, zehazki:

– ECUREUIL helikopteroak, AS-350-B2 motakoa:

Bidaiari bakoitzeko, helikoptero bakoitzeko, 50.000.000 pezeta (klausulen pleguak eskatuta, 40.000.000 pezeta.

– BELL/GARLICK helikopteroa, UH-1H Modelo (205):

Bidaiari bakoitzeko, 100.000.000 eskubide bereziengatik, bidaiari bakoitzeko 20.300.000 pezetaren baliokide.

11. Zein da pilotu hauen lanaldia?

Uztailaren 1etik urriaren 15era bitarte, Miluzeko basean egon beharreko guardialdia, 15:00etik eguzkia sartu arte.

Denbora tarte horretan, eguzkia ateratzen denetik 15:00etara, eta gainerakoan eguzkia ateratzen denetik sartu arte guardialdi lokalizatua.

Inolaz ere ez da gainditzen Legeak asteko batez besteko egiazko lan orduen kopururako ezartzen duen gehienekoa (40), egiazko lana hegaldian egotea izanik.

12. Zein da lan hauek betetzen dituzten langileen plantilla?

Enpresa adjudikazio-hartzaileak gaur arte 14 pilotu eta 5 mekanikari erabili ditu.

13. Hegazkinen mantetzea eta funtzionamenduko egokia ziurtatzeko ze neurri hartu dira?

Galdetu diren gaietatik bigarrenari emandako erantzunean daude adierazirik.

14. Nafarroan lan hauetan aritzen diren helikopteroen konponketa eta mantentze lanak non egiten dira?

– Miluzeko instalazioetan.

– Enpresaren instalazioetan Valladoliden.

– Haren subsidiario Aerotaller, S.A. enpresaren instalazioak Madrilen (Cuatro Vientos).

15. Zentroetan baimenduak dira?

Bai.

Valladolid eta Madrilekoak JAR-145 zentroak dira, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak onartuak, eta E-050 eta E-083 onespenez bakiak dituzte.

Ikuskapenak linean edo basetik kanpo (Miluze) edo basean (Valladolid eta Madril) egiten dira, aireontzi bakoitzaren mantentze programari jarraituz eta JAR-145 mantentze lanetako zentro onetsiaren Memorian ezarritako baldintzen arabera.

16. Zein da HELIMAR, S.A. enpresarekin zerbitzu horretarako egiten den kontratuaren zenbatekoa?

Helikoptero nagusia, ECUREUIL modeloa, AS-350-B2 motakoa

1998. urtea	100.000.000 pezeta.
1999. urtea	102.000.000 pezeta
2000. urtea	104.000.000 pezeta.

HELITANKE helikopteroa, BELL/GARLICK, UH-1H (205) modeloa

1998. urtea	19.900.000 pezeta
1999. urtea	20.300.000 pezeta.
2000. urtea	20.750.000 pezeta

17. Zein da kontratu horren iraupena?

Hiru urte (1998, 1999, 2000).

18. Kontratu hori luzatu ahal da?

Bai, urte batez, bi alderdiek hala erabakita.

19. Helimar, S.A. enpresak Nafarroko Gobernuarekin izenpetutako baldintza plegua betetzen ari da?

Bai.

20. Nafarroako Gobernuak zein neurri hartu behar ditu Helimar, S.A. enpresari dagokionez?

Bat ere ez.

Ez da frogatu zerbitzua bete ez denik edo bertan behera gelditu denik.

21. Egindako salaketak argitu bitartean Helimar, S.A.rekin izenpetutako kontratua, badaezpada, bertan behera utziko da?

Ez.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 31n.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin.

Foru Administrazioaren lanpostuetan euskararen erabilerari eta baremazioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Andrés Burguete Torres Foru Parlamentari jaunak Foru Administrazioaren lanpostuetan euskararen erabilerari eta baremazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2000ko maiatzaren 10eko 39 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, besteak beste, Euskarari buruzko Foru Legearen balizko aldaketari buruz. Hona Lehendakariaren eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.- Euskararen eskakizuna ezinbestekoa den lanpostu publikoen zerrenda, departamentuz departamentukoa. Foru Administrazioaren zerbitzura dauden langile guztien zerrenda.

<u>Lehendakariaren Departamentua</u>	
Kazetaria	1
<u>Justizia Zuzendaritza Nagusia</u>	
Itzultzaile interpretea (hutsik)	1
<u>Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua</u>	
Menpekoa	1
<u>Ekonomi eta Ogasun Departamentua</u>	
Administrari laguntzailea	3
<u>Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua</u>	
Administrari laguntzailea (hutsik)	1
<u>Hezkuntza eta Kultura Departamentua</u>	
– Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia	
– Kultura Zuzendaritza Nagusia	
– Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia	

Irakasleak

ILZko laguntzailea	1
ILZko zuzendaria	1
Maisua	554
Eskola orientatzailea	1
Bigarren Hezkuntzako irakaslea	321
Hizkuntza Eskolako irakaslea	13
Euskara irakaslea	2
Irakasle teknikoa	4
Guztira	897

Irakasle ez diren langileak

Administraria	4
Administrari laguntzailea	37
Sukaldaria	1
Etxezaina	14
Hezkuntzako zaintzailea	5
Zerbitzuko zuzendaria	3
Liburutegiko arduraduna	9
Hezkuntzako ikuskatzailea	3
Bulegoburua	4
Atalburua	2
Unitateburua	3
Administrari ofiziala	1
Zerbitzu Orokorrak	7
A.P.T. (Adar Juridikoa)	1
Hezkuntzako teknikaria	1
Erdi mailako teknikaria	26
Goi mailako teknikaria	8
Euskara itzultzailea	1
Euskara itzultzailea	14
Itzultzaile-interpretea	5
Guztira	179

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua

Altsasu

OLT/EDU	4
Gizarte laguntzailea	1
Administrari laguntzailea	3
Fisioterapeuta	1
OOLTko sendagilea	3
OOLTko pediatra	1

Auritz

OLT/EDU	3
Administrari laguntzailea	1

OOLTko sendagilea	3
-------------------	---

Elizondo

OLT/EDU	4
---------	---

Administrari laguntzailea	2
---------------------------	---

Fisioterapeuta	1
----------------	---

OOLTko sendagilea	3
-------------------	---

OOLTko pediatra	1
-----------------	---

Etxarri

OLT/EDU	3
---------	---

Administrari laguntzailea	1
---------------------------	---

OOLTko zeladorea	1
------------------	---

OOLTko sendagilea	2
-------------------	---

OOLTko pediatra	1
-----------------	---

Uharte

OLT/EDU	1
---------	---

Administrari laguntzailea	1
---------------------------	---

OOLTko pediatra	1
-----------------	---

Irurtzun

OLT/EDU	3
---------	---

Administrari laguntzailea	2
---------------------------	---

OOLTko sendagilea	3
-------------------	---

Leitza

OLT/EDU	2
---------	---

Administraria	1
---------------	---

OOLTko sendagilea	2
-------------------	---

Lesaka

OLT/EDU	4
---------	---

Administrari laguntzailea	3
---------------------------	---

OOLTko sendagilea	3
-------------------	---

OOLTko pediatra	1
-----------------	---

Gizarte langilea	1
------------------	---

Doneztebe

OLT/EDU	3
---------	---

Administrari laguntzailea	1
---------------------------	---

OOLTko sendagilea	2
-------------------	---

OOLTko pediatra	1
-----------------	---

Gizarte langilea	1
------------------	---

Ultzama

OLT/EDU	2
---------	---

Administrari laguntzailea	1
---------------------------	---

OOLTko sendagilea	2
-------------------	---

Azkenik, departamentuz departamentu, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langileen kopurua aipatzen dugu:

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	1.292
Ekonomi eta Ogasun Departamentua	349
Toki Administrazio Departamentua	41
Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua	223
Hezkuntza eta Kultura Departamentua	4.899
Osasun Departamentua	5.075
Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua	303
Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua	263
Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentua	562
Guztira	13.294

2.- Eremu ez-euskaldunean, Nafarroako Gobernuak baimendu ez baina haren dirulaguntzak jasotzen dituzten ikastetxeetan euskarazko irakaskuntzan ari diren ikasle kopuruaren zerrenda.

Laguntza motak:

a) Garraiorako eta Jantokirako laguntzak (Euskara Zerbitzuak kudeatuak).

b) Bere denboran Parlamentuak onetsi zuen hitzarmenaren modulu ekonomikoaren arabera funtzionamendu unitateengatiko laguntza (Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak kudeatua).

a) Garraiorako eta Jantokirako laguntzak:

Ikasturtea	Emandako laguntzen kopurua
1991-92	185
1994-95	313
1998-99	310
1999-00	
Lizarrako Ikastola	73
Tuterako Ikastola	35
Iruñeko udal ikastolak	22
Iruñeko ikastola itunduak	34
Irunberriko Ikastola	11
Zangozako Ikastola	60
Tafallako Ikastola	41
Vianako Ikastola	7
Oiongo Ikastola	22
Baztango Ikastola	5
Bera	2
Aldaketa (Luzaidetik)	1

Osagarria, Badostaindik	5
Andoain (Goizuetatik)	2
Barañain (Imarkoaindik)	1
Guztira, 1999-00	321

b) Bere denboran Parlamentuak onetsi zuen hitzarmenaren modulu ekonomikoaren araberako funtzionamendu unitateengatik laguntza (Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak kudeatua).

1991-92 ikastaroa. Eskualde ez-euskalduneko ikastolak

Ikastola	Haur Hezkuntzako unitateak	Lehen Hezkuntzako unitateak	Unitateak/guztira
Arangoiti (Irunberri)	1	1	2
Argia (Tutera)	2	2	4
Deikaztelu (Sartaguda)	1	1	2
Erentzun (Viana)	3	3	6
Muskaria (Lodosa)	1	-	1
Zangoza (Zangoza).	1	1	2
Guztira	9	8/-	17

1992-93 ikasturtea. Eskualde ez-euskalduneko ikastolak

Ikastola	Haur Hezk. unitateak/ikasleak	Lehen Hezk. unitateak/ikasleak	Unitateak/ikasleak, guztira
Arangoiti (Irunberri)	1/20	1/4	3/24
Argia (Tutera)	1/30	3/25	4/55
Deikaztelu (Sartaguda)	1/14	1/8	2/22
Erentzun (Viana)	2/31	3/34	5/65
Kortes (Cortes)	1/-	0/0	1/-
Muskaria (Lodosa)	1/9	0/0	1/9
Zangoza (Zangoza).	1/28	2/71	3/99
Zarrakaztelu (Zarrakaztelu)	1/5	0/0	1/5
Guztira	9/137	10/142	19/279

1993-94. Eskualde ez-euskalduneko ikastolak

Ikastola	Haur Hezk. unitateak/ikasleak	Lehen Hezk. unitateak/ikasleak	Unitateak/ikasleak, guztira
Arangoiti (Irunberri)	1/12	1/11	2/23
Argia (Tutera)	2/36	3/33	5/69
Deikaztelu (Sartaguda)	1/9	2/18	3/27
Erentzun (Viana)	3/44	3/36	6/80
Kortes (Cortes)	1/9	0/0	1/9
Muskaria (Lodosa)	1/9	1/9	2/18
Zangoza (Zangoza)	1/44	2/74	3/118
Guztira	10/163	12/181	22/344

1994-95 ikasturtea. Eskualde ez-euskalduneko ikastolak

Ikastola	Haur Hezk. unitateak/ikasleak	Lehen Hezk. unitateak/ikasleak	Unitateak/ikasleak, guztira
Arangoiti (Irunberri)	1/8	2/18	3/26
Argia (Tutera)	2/27	4/49	6/66
Deikaztelu (Sartaguda)	1/10	2/19	3/29
Erentzun (Viana)	3/44	4/42	7/86
Kortes (Cortes)	1/9	0/0	1/9
Muskaria (Lodosa)	1/7	1/17	2/24
Zangoza (Zangoza).	1/17	3/41	4/58
Guztira	10/122	16/186	26/308

1995-96 ikasturtea. Eskualde ez-euskalduneko ikastolak

Ikastola	Haur Hezk. unitateak/ikasleak	Lehen Hezk. unitateak/ikasleak	Unitateak/ikasleak, guztira
Arangoiti (Irunberri)	1/13	2/23	3/36
Argia (Tutera)	3/42	4/56	7/98
Deikaztelu (Sartaguda)	1/7	2/17	3/24
Erentzun (Viana)	3/37	4/57	7/94
Kortes (Cortes)	1/7	0/0	1/7
Muskaria (Lodosa)	1/8	1/7	2/15
Zangoza (Zangoza).	1/19	3/31	4/50
Guztira	11/133	16/191	27/324

1996-97 ikasturtea. Eskualde ez-euskalduneko ikastolak

Ikastola	Haur Hezk. unitateak/ikasleak	Lehen Hezk. unitateak/ikasleak	Unitateak/ikasleak, guztira
Arangoiti (Irunberri)	2/25	2/23	4/48
Argia (Tutera)	5/70	5/58	10/128
Deikaztelu (Sartaguda)	1/7	2/16	3/23
Erentzun (Viana)	3/29	4/48	7/77
Kortes (Cortes)	1/9	0/0	1/9
Muskaria (Lodosa)	2/18	1/7	3/25
Zangoza (Zangoza).	1/15	2/25	3/40
Guztira	15/173	16/177	31/350

1997-98 ikasturtea. Eskualde ez-euskalduneko ikastolak

Ikastola	Unitatea/ikasleak, Haur H.	Unitatea/ikasleak, Lehen H.	Unitatea/ikasleak, DBH-I	Unitatea/ikasleak, DBH-II	Unitatea/ikasleak, guztira
Arangoiti (Irunberri)	2/21	3/27			5/48
Argia (Tutera)	3/55	4/59	1/9	1/6	9/129
Deikaztelu (Sartaguda)	1/4	2/16			3/20

Erentzun (Viana)	2/21	5/53			7/74
Kortes (Cortes)	1/2	0/0			1/2
Muskaria (Lodosa)	1/10	2/19			3/29
Zangoza (Zangoza)	1/15	2/34	1/10	1/6	5/65
Garcés de los Fayos (Tafalla)				1/12	1/12
Guztira	11/128	18/208	2/19	3/24	34/379

1998-99 ikasturtea. Eskualde ez-euskalduneko ikastolak

Ikastola	Unitatea/ ikasleak, Haur H.	Unitatea/ ikasleak, Lehen H.	Unitatea/ ikasleak, DBH-I	Unitatea/ ikasleak, DBH-II	Unitatea/ ikasleak, guztira
Arangoiti (Irunberri)	2/23	3/32	-	-	5/55
Argia (Tutera)	3/54	5/72	1/12	1/6	10/144
Deikaztelu (Sartaguda)	1/4	3/20	-	-	4/24
Erentzun (Viana)	2/13	5/57	-	-	7/70
Kortes (Cortes)	1/4	-	-	-	1/4
Muskaria (Lodosa)	1/9	2/19	-	-	3/28
Zangoza (Zangoza)	-	1/12	1/15	1/12	3/39
Guztira	10/107	19/212	2/27	2/18	33/364

1999-00 ikasturtea. Eskualde ez-euskalduneko ikastolak

Ikastola	Unitatea/ ikasleak, Haur H.	Unitatea/ ikasleak, Lehen H.	Unitatea/ ikasleak, DBH-I	Unitatea/ ikasleak, DBH-II	Unitatea/ ikasleak, guztira
Arangoiti (Irunberri)	2/26	3/33	-	-	5/59
Argia (Tutera)	3/53	6/90	1/12	1/9	11/164
Deikaztelu (Sartaguda)	1/2	3/22	-	-	4/24
Erentzun (Viana)	2/26	5/51	-	-	7/77
Kortes (Cortes)	1/3	-	-	-	1/3
Muskaria (Lodosa)	2/16	2/19	-	-	4/35
Zangoza (Zangoza)	-	1/19	-	1/7	2/26
Guztira	11/126	20/234	1/12	2/16	34/388

3.- Nafarroako Gobernuak aurreko galderako egoerak normalizatu eta ebazteko ematen dituen konponbideak.

Bai indarreko arauak eskatzen dituzten baldintzak ez betetzeagatik baimenik ez duten ikastolen egoera irregularrari konponbidea emateko hartutako neurriak eta bai baimendutako beste ikastola batzuek egun duten behin-behineko egoera kontuan hartuz, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Nafarroako Ikastolen Federazioari, ikastola haien ordezkaria den aldetik, negoziazioei ekitea eskaini zien, oro har, bakoitzak dauzkan arazoei buruz hitz egiteko.

Ez du erantzunik jaso planteatutako proposamenari buruz, gaur arte behintzat.

4.- Nori dagokio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoko lanpostuak deitzeko beharrezkoak diren baremoak prestatzea?

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen organoek langileri arloan dituzten eskurantzak zehazten dituen apirilaren 1eko 165/1996 Foru Dekretuaren 2. artikuluko b) idatz-zatiaren arabera, Lehendakaritza kontseilariari dagokio Funtzio Publikoan sartzeko eta lanpostuak betetzeko deialdiak onetsi, izapidatu eta ebaztea.

Hala eta guztiz ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko irakasleei dagokienez, Foru Dekretu bereko 4. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letrak xedatu zuen Hezkuntza eta Kultura kontseilariari dagokiola Funtzio Publikoan sartzeko eta irakasle lanpostuak betetzeko deialdiak onetsi, izapidatu eta ebaztea.

Irakasle ez diren langileen lanpostuetan, organikoki Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpe direnetan, aipatu araua betetzeko, oposizioetako –oposizio-lehiaketa, kasua bada– eta lekualdatze-lehiaketako deialdiak, eta, horrenbestez, haien baremoak, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren ebazpenez onesten dira, Departamentu honek proposatuta, horri buruz azaroaren 215/1985 Foru Dekretuak –ekainaren 15eko 86/1998 Foru Dekretuaz aldatu zen– eta hura garatzeko arauak esaten dutenari jarraituz.

Irakasle lanpostuak betetzeari dagokionez, Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateratua onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretu Legegilearen 98. artikulua betez, eta –horri buruzko foru araurik ez dagoenez– irakasleak hautatzeari, lanpostuak betetzeari, lanbide-sustapenari eta langile horien barruko sustapenari dagokienez ere, arlo horietan Estatuan indarra duten xedapekan aplikatu behar dira.

Prozedura horiei aplikatzekoak diren arauak, eta galderaren xedeari dagokionez, merezimen-duen baremoak prestatzea, ezberdinak dira lanpostua funtzionarioen lekualdatze-lehiaketaren bitartez edo irakasleen funtzio publikoan sartzearren bitartez betetzen den.

Nazio mailako lekualdatze lehiaketak:

LOGSE legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren 4. puntuak ezartzen du hezkuntza administrazioek aldizka nazio-mailako leku-aldatze lehiaketetarako deialdiak eginen dituztela, eta "haitan parte hartu ahal izanen dute irakasle diren funtzionario publiko guztiek, edozein dela ere lan egiten duten edo lanera sartu diren admi-

nistrazioa”; betiere, deialdietan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Lege aurreikuspen hori garatzeko, urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuak ezartzen du bi urtez behin eginen direla deialdi horiek, eta hezkuntza administrazioak behartzen ditu irakasle funtzionarioek parte har dezaten bideratzera, LOGSE legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren termino beretan, parte-hartzeari buruzko beste baldintza batzuk ere zehaztuta.

Nazio mailako lekualdatze lehiaketaren bitartez lanpostuak betetzea irakasle funtzionarioen estatutu-araubidearen oinarrian dagoenez (LOGSEren 9.1 xedapen gehigarria), estatuko arauak, LOGSE berak eta 1774/1994 eta 2112/1998 Errege Dekretuek, prozedura horiek arautzen dituzte hezkuntza administrazio ezberdinen artean behar den koordinazioa erdiesteko, hain zuzen ere ondoko helburua betetzeko: “interesatuek horietan guztietan egintza bakar batez parte hartu ahal izanen dute, eta haien erabakiaz ezin izanen da lortu kidego batean destino bat baizik”.

Helburu hori betetzeko, urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuak berak ezartzen ditu nazio mailako lekualdatze-lehiaketan merezimenduen baremoek bete beharreko zehaztapenak, ondoko irakasleen kidegoetarako: maisu-maistrak (I. eranskina), Bigarren Hezkuntzako irakasleak, Lanbide Heziketako irakasle teknikoak, Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleak eta Arte Plastiko eta Diseinuko tailerretako irakasleak eta maisu-maistrak (II. eranskina) eta Musika eta Arte Eszenikoetako katedradun eta irakasleak.

Aipatu zehaztapenak bi urtez behin zehazten dira, irakasleen kidego bakoitzerako, hezkuntza administrazio guztiek -Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamentua barne- deitzen dituzten nazio mailako leku-aldatze lehiaketetan aplikatzekoak diren prozedura-arauak onesten dituen Ministerio Aginduan, hain zuzen ere 2112/1998 Errege Dekretua betetzeko.

Azaldutakoa dela eta, nazio mailako leku-aldatze lehiaketetarako deialdietako merezimenduen baremoak Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren foru agindu baten bitartez onesten dira, Hezkuntza Ministerioak onetsitako arauak errespetatuz eta Unibertsitatez besteko irakasleen mahai sektorialari kontsulta egin ondoren.

Langileak birbanatzeko prozedurak:

Irakasle funtzionarioen lanpostuak betetzeko lehiaketei buruzko arauak ezartzen dituen uztailaren 12ko 24/1994 Legeak 1. artikuluan zehaztu zuen “LOGSE legearen bederatzigarren xedapen

gehigarriaren 4. idatz-zatiak aipatzen dituen nazio-mailako lehiaketak egiten ez diren ikasturteetan, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak eta hezkuntza eskumen guztiak bereganatuta dauzkaten autonomia erkidegoetako organo eskudunek kudeatzen dituzten lurralde-eremuei lanpostuak betetzeko dagozkien prozedurak antolatu ahal izanen dituzte; hori guztia ez da eragozpen izanen langileak birbanatu edo birkokatze prozesuak egiteko”.

Manu hori zabaltzeko, nazio mailako lekualdatze-lehiaketak egitea derrigorrezkoa ez den urteetan, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak lanpostuak betetzeko deialdiak egin izan ditu, soilik organikoki eta funtzionalki Departamentuaren menpe dauden langileentzat.

Deialdi horietan, merezimenduen baremoak hezkuntza administrazio guztientzat urriaren 2ko 2112/1998 Errege Dekretuak (lehen, abuztuaren 5eko 1774/1994 Errege Dekretua) ezarritakoari egokitu dira, behin Unibertsitatez besteko Irakasleen Mahai Sektorialean dauden sindikatuei kontsulta egin ondoren.

Irakasleen funtzio publikoan, beste kidego batean sartzeko oposizio-lehiaketetarako deialdiak:

Irakasleen funtzio publikoan sartzeko deialdiei buruz, LOGSEren bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. puntuak ezarri zuen oposizio-lehiaketa izanen dela bidea, eta lehiaketa aldian, beste merezimendu batzuen artean, prestakuntza akademikoa eta irakaskuntzan izandako esperientzia.

Bestalde, lege organiko bereko hamaseigarren xedapen gehigarriak irakasle funtzionarioei kidego ezberdinen artean mugitzeko aukera bermatzen zaie, eta ezartzen du horretarako onesten diren deialdietan, beste merezimendu batzuen artean, egindako lanak eta gauditutako prestakuntza eta sakontze ikastaroak hartuko direla kontuan, merezimendu akademikoez gainera.

LOGSEren bederatzigarren xedapena garatzeko, LOGSEk aipatzen dituen funtzionario irakasleen kidegoetan sartu eta espezialitateak eskurtzea arautzen duen ekainaren 4ko 850/1993 Errege Dekretuak, I. eranskinean, irakasle funtzionarioen kidegoetan libreki sartzeko merezimenduen baremoek bete beharreko zehaztapenak ezarri zituen.

Zentzu berean, irakasleen kidegoen artean mugitzeko aukera arautzen duen apirilaren 22ko 575/1991 Errege Dekretuak, I. eranskinean, hezkuntza administrazio eskudunek horri buruz ones-

ten dituzten deialdietako baremoek bete beharreko zehaztapenak ezarri zituen.

Horrenbestez, irakasleen kidegoetan sartzeko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak onetsitako deialdiek beti errespetatu dituzte aipatu errege dekretuetan ezarritako irizpideak; Giza Baliabideen Zerbitzuak, sindikatuekin kontsultatu ondoren, aplikatzekoak diren arauetan arautu gabeko alderdiak zehaztuko ditu.

Azkenik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari dagokionez, kontuan hartu behar da erakunde autonomo horretara sartu eta hango lanpostuak betetzea arautzen duen azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuaren lehen xedapen gehigarriaren arabera Osasun kontseilariari dago kiola deialdietako oinarriak eta merezimenduen baremoak onestea.

5.- Hitzartu al du Nafarroako Gobernuak sustapen neurri zehatzen bat, duela gutxi sinatutako Funtzio Publikoaren Hitzarmenaren negoziazioaren barruan?

Nafarroako Gobernuak, borondatezkotasunaren irizpidea erabiliz eta bere zerbitzuan ari diren langileen lan baldintzen negoziazioaren esparruan, berretsi du aurrera jarraitu nahi duela egun dauden neurriekin bere langileek euskaraz ikas dezaten sustatuz; neurri horiek 1993ko uztailaren 9ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko

ekainaren 21eko 195/1993 Foru Dekretuan zehaztu ziren.

6.- Lehendakaritzako kontseilari Gurrea jaunak, Funtzio Publikoaren Hitzarmenean, sindikatuekin 2000-2001 urteetarako akordio puntu bat sinatu du: "lanpostua eskuratzeko euskararen jakitea frogatu beharreko baldintzatzat duten eremu ez-euskalduneko eta mistoko plazak zehaztea". Zer asmo du hori dioenean, eta zer hartzen du bere baitan?

Administrazioak eta sindikatuek 2000-2001 urteetarako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuan ari diren langileen lan baldintzei buruzko akordioa sinatu zenean, Nafarroako Gobernuak 12. atala onartu zuen, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 15.2 eta 17. artikuluetan ezarrita dagoena betetzeko. Akordio horren norainokoa aipatu atala garatzen eta betetzen denean zehaztuko da.

Betiere, akordioak hitzez hitz eta soilik aipatzen ditu eremu euskalduneko (EZ adberbioa gabe) eta eremu mistoko lanpostuak".

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 181. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 26an.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin.

Santa Lucíako segurtasun biltegia zaintzeko kontrolei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak Santa Lucíako segurtasun biltegia zaintzeko kontrolei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko maiatzaren 15eko 40 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Santa Lucíako segurtasun biltegia zaintzeko kontrolei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Lixibiatuen laginak Namainsa Sozietate Publikoak jasotzen ditu; analisiak, berriz, Gaiker laboratorioak egiten ditu. Aipatu laboratorioa Zamudioko Parke Teknologikoko 202. erakinean dago, Zamudion (Bizkaia).

2.- Hona analisisien emaitzak:

Eguna	Ordua	pH	As	Cd	Cu	Hg	Pb	Zn	Nitratoak
		7,9	<0,1	<0,01	<0,02	<0,001	0,02	0,05	
21/12/99	16,00	8,2	<0,1	<0,01	<0,02	<0,001	0,02	0,05	
20/12/99	16,30	8	<0,1	<0,01	<0,02	<0,001	0,02	0,05	
4/1/00	12,45	7,3	<0,1	<0,01	<0,02	<0,001	0,029	0,05	
19/1/00	17,15	7,3	<0,1	<0,01	<0,02	<0,001	0,02	0,05	
25/1/00	18,30		<0,1	<0,01	<0,02	<0,001	0,02	0,05	
2/2/00	10,30		<0,1	<0,01	<0,02	<0,001	0,02	0,05	
7/2/00	12,30		<0,1	<0,01	<0,02	<0,001	0,02	0,05	
17/2/00	13,00	7,9	<0,1	<0,01	<0,02	<0,001	0,02	0,05	
21/2/00	19,00	7,7	<0,1	<0,01	<0,02	<0,001	0,02	0,05	
6/3/00	13,00	7,5	<0,1	<0,01	<0,02	<0,001	0,02	0,05	
9/3/00	19,00	6,2	<0,1	<0,01	<0,02	<0,001	0,02	0,05	
13/3/00		7,6		0,14	<0,05		<0,05	0,12	324,2

Taulan ikus daitekeenez, metal astunen mailak bereziki baxuak dira; horrek segurtasun biltegiak gaur arte ongi balio izan duela adierazten du.

3. Analisisien emaitzak ez zaizkio inongo kolektibori eman; inork ez ditu haiek eskatu, eta, gainera, halakorik ez ohi da egin, arlo honetako erantzukizuna eta eskumena ingurugiroko agintariena delako.

4. Departamentuak ez du inongo informazio eskaririk jaso biltegiak lixibiatuaren analisisetan lortutako emaitzei buruz. Argi dago horri buruz jaso-

tzen diren eskari guztiei ingurugiro arloko informazioa edukitzeko eskubideari buruzko abenduaren 12ko 38/1995 Legean ezarritako moduan erantzunen zaiela.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko ekainaren 2an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros.

Biofruit enpresak Buñuelen lantegi bat zabaldu ez izanari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Andrés Burguete Torres Foru Parlamentari jaunak Biofruit enpresak Buñuelen lantegi bat zabaldu ez izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko maiatzaren 23ko 42 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Buñuelen BIOFRUITen lantegi bat irekitzeari buruz. Hona Nuria Iturriagaitia Ripoll Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna:

1. eta 3. galderen erantzuna

Ondokoak dira, labur esanda, 1998ko urriaren 22an sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren ondorioz, Transformados Ecológicos Biofruit, S.A. –aurrerantzean Biofruit– eta haren egoera dela eta Nafarroako Gobernuak hartu dituen konpromisoak:

1) Finantzak: enplegua eta inbertsioa sustatzeko finantza-pizgarriak.

1.1.- Dirulaguntzak

Martxoaren 27ko 79/1995 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraikiz Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ezartzen dituenak, hau da, diruz laguntzekoa den inbertsioaren % 20ko fondo galdurako dirulaguntza, baldin eta Nafarroako Gobernuaren zein Estatuko eta Europako Batasuneko arauak betetzen badira.

1998ko azaroaren 16an, 79/1985 Dekretuarekin bat etorritik, foru agindu bat eman zuen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak, 81.033.402 pezetako fondo galdurako dirulaguntza –proiektuko ibilgetu materialaren % 20– emateko enpresa horri, bai eta 500.000 pezetako fondo galdurako dirulaguntza ere, sortzen den lan-kontratu mugagabeko lanpostu bakoitzeko.

Foru agindu horren bidez orobat ezarri ziren laguntza horiek jasotzeko beharrezko baldintzak. Hona aipagarrienak: 2. idatz-zatian esaten den legez, laguntzak behin betiko bihurtuko dira inbertsioa erabat gauzatu dela ikustean eta Departamentuak horren gaineko ebazpena ematean; 8. idatz-zatian esaten den legez, ordaintzen etendura eta porrota, besteak beste, emandako laguntzak erabat zein hein batean murrizteko arrazoi izan daitezke, Departamentuak hala erabakiz gero.

1.2.- Abalak

Nafarroako Gobernuak, berez ez bada sozietate instrumental baten bidez, zehazten d(ir)en finantza entitate(ar)en aldeko abala emateko konpromisoa hartu zuen, 81.033.424 pezetako gehieneko zenbatekoa bermatzearren, protokolo honen azalpen-zatian adierazitako proiektua burutzeko enpresak hitzartzen dituen mailegu edo kredituetatik nagusienean.

Abal hori hitzartutako dirulaguntzak kobratzeko eskubidea lagatzearen bidez edo nahikoa den bestelako berme baten bidez bermatu beharko litzateke, dirulaguntza ematen duenari aplikatzeko den araudiarekin bat.

Horrela, bada, Biofruitek hainbat finantza entitateekin sinatu zituen maileguetarako fidantza eman zuen Nafincok. Hona entitate horiek: Banesto (30 milioi pezeta 1999-01-15ean), Banco de Sabadell (30 milioi pezeta 1999-01-25ean) eta Banco de la Vasconia (22 milioi pezeta 1999-03-18an).

Biofruitek, berriz, bermatu egin zion Nafincori itzuli egingen ziola abal horien arioren ordaindu beharrezko zenbatekoak, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren 1998ko azaroaren 16ko foru aginduaren bidez emandako dirulaguntzak kobratzeko eskubideak lagatuz –1.1. atalean aipatu da foru agindu hori–. Halatan, Nafinco da, hirugarrenei eta Nafarroako Gobernuari begira, dirulaguntza horren zenbatekoa jasotzeko dezakeen entitate bakarra.

Mailegu horien mugagabekotasuna heldu eta Biofruitek ez die aurre egin haiek eragindako obligazioei, eta hortaz, finantza-entitate mailegu-emaeleek Nafincori eskatu diote, abalista solidarioa den aldetik, nagusia eta interesak ordain ditzala. Hona ordainketa horien data eta zenbatekoak: Banco de Sabadell (30.668.595 pezeta 2000-03-09an), Banco de Vasconia (22.259.705 pezeta 2000-03-

13an) eta Banesto (30.323.364 pezeta 2000-04-06an).

Biofruitek proiektua abian jarri baino lehen ordainketa-etendura egiteko eskaera egin duenez gero –Tuterako Lehen Auzialdiko 2. Epaitegiak etendura onartu du 2000-04-06an–, etenduraren hartzekodun arrunt bihurtu da Nafinco (83.251.264 pezeta), eta era berean, kontu-hartzaile bakar izendatu dute.

2) Zerga-pizgarriak

2.1.- Sozietateen gaineko zerga

Enpresarekin sinatutako lankidetzak hitzarmenean jasotzen diren zerga-pizgarriak –legeak ezartzen dituen baldintza, forma eta zenbatekoen araberrakoak– Sozietateen gaineko Zergari dagozkio. Hona:

- Inbertsioa sustatzeko: aktibo finko material berrietan eginiko inbertsioen % 15, lur-eremueta-koenak izan ezik, jarduera abian jarri arte.

- Enpresa sortu berriei: Sozietateen gaineko Zergaren kuota osoaren % 50eko hoberia, elkarren segidako ezarpen-aldiei dagokien kuota alegia, baldin eta jarduera hasi zenetik zazpi urteko epearen barruan ixten badira aipaturiko ezarpen-aldiak.

- Enplegua sortzeko: Ekitaldian bertan sinaturiko lan-kontratu mugagabea duen plantillaren batez besteko gorakadari (pertsonako eta urteko) dagokion kuotatik 700.000 pezeta, hori guztiori aurreko ekitaldian kontratu-mota hori zuen batez besteko plantillari dagokionez, baldin eta plantilla osoan kopuru bereko gorakada gertatzen bada.

- I+G jardueretarako: kontzeptu hori dela-eta ezarpen-aldi bakoitzean egindako gastuen eta aktibo finko berrien % 30aren kuota likidoa kentzea.

- Esportazio-jardueretarako: atzerrian sukurtsal eta establezimendu iraunkorrak jartzeko egiazki egin diren inbertsioen % 25 kentzea.

- Lanbide-Hezitaketako jarduerendako zerga-pizgarriak: ezarpen-aldi bakoitzean eginiko gastuen % 15eko kuota kentzea.

2.2.- Ondare-eskualdatzeen gaineko zerga

Buñuelgo industrialdean lurra erostea kargatzen duen zergaren kuotako % 95 kentzea.

3) Buñuelgo industrialdeari dagokionez, Nafarroako Gobernuak 17.200 bat metro koadroko lurzati bat saltzeko konpromisoa hartu zuen, industrialde horretan salmentak egiteko dituzten baldintza orokorrekin bat.

Lankidetzak hitzarmena sinatu aurretik, enpresak eskatua zuen aipatu lurzatia, eta horregatik hain zuzen, Industriako zuzendari nagusiaren 1998ko ekainaren 18ko ebazpenaren bidez, 16.709 metro koadroko lurzati bat gorde zitzaion aldi baterako Biofruit enpresari, baldintza orokorrekin lotuta betiere –proiektu tekniko ikus-onetsia aurkeztea eta jarduera- eta obra-lizentzia lortu izana justifikatzea besteak beste–. Enpresak, ordea, ez ditu eskakizun horiek bete, eta horrenbestez, erre-serba hura besterik gabe bertan behera gelditu da, aipatu ebazpenean xedatuari jarraikiz.

Nafarroako Gobernuak, bestalde, aurreko lurzatiaren alboko lurzati bat –6.000 metro koadrokoa– erosteko aukera eskaini zion zazpi urterako Biofruit enpresari, baina enpresak ez du aukera hori baliatu.

4) Lankidetzak hitzarmenak orobat jaso zuen enpresari ura hornitzearen 60.000 m³-ko urmaela egiteko beharrezkoak ziren inbertsioak egiteko konpromisoa.

Buñuelgo industrialdea egin zenez gerotik bertan izan den arazoa izan da ur hornidurarena; izan ere, Aragoiko Ubide Inperialeko hartune batetik egiten da hornidura eta ez dago bermatuta urte osoan zehar ura izan den ziurtasun erabatekoa, garbiketa zein konponketak egiteko hornidura-eteteak eragiten baititu ubidea mantentzeak.

Lehenagotik aztertutako konponbide bat zen hornidura-urrael bat egitea industrialdetik gertu, ubidea itxita dagoenetan bertako industriei ur-hornidura bermatuko diena. Kontu hori ere aintzat hartu zen enpresarekin lortutako akordioan. Obrak –abenduaren 13an hasi ziren– bukatuta daude, eta ekainerako aurreikusen da horien onarpena.

5) Hondakinak tratatzeko egun dauden aukerak aztertzeke konpromisoari dagokionez, eta hura betetzeko, bilera bat izan genuen Nilsan 1999ko azaroaren 5ean, eta bertan izan ziren Kalitate Departamentuari atxikita dauden Biofruit enpresako teknikariak. Bilera hartan, aztertu egin ziren enpresaren produkzio prozesua, kalkuluen arabera egiten dituzten isurketak, eragiten duten poluzioa eta horiek tratatzeko dauden aukera tekniko eta ekonomikoak. Produkzio sistemari eta horrek sortutako poluzioari buruzko aurreikuspenak zein diren ikusita, eta antzeko fabrikei buruz dagoen informazioarekin, enpresarekin batera atera dugun ondorioa da araztegi berekia instalatzea dela aukerarik eragingarriena, eta horrekin batera, ahal baldin bada isuritako emaria gutxitzea, ezarri beharreko produkzio prozesuan aldatzeko eginez.

Azkenik, esan beharra dago NILSAk enpresari emandako aholkularitza ez dela salbuespena izan, hori bera egin ohi baitu Saneamenduko Plan Zuzentzailean zeresanik dutenekin ere, planean izan beharreko koordinazioa eta haren garapena bermatzearren.

2. galderaren erantzuna

Nafarroako Gobernuak bere esku dauden jarduketa guztiak egin ditu, egiten ditu eta egingen ditu industria sustatzeko politika arautzen duen

legediaren esparruan, bereziki beharizan gehien dagoen tokietan. Horren fruitu da hain zuzen ere orain dela gutxi 50 lanpostu sortu dituen enpresa bat abian jarri izana Buñuelen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagoitia Ripoll

(Oharra: Aipatutako hitzarmena Foru Parlamentarioen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

Iparreko autobioako lan osagarriak zertan diren jakiteko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak iparreko autobioako lan osagarriak zertan diren jakiteko galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko maiatzaren 23ko 42 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du Iparreko autobioako lan osagarriei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Iparreko autobioako lan osagarriak, Lekunberri, Azpirotz, Gorriti, Areso eta Leitzan egiten ari direnak alegia, zertan diren

Lan osagarriak egiteko proiektu bat dago; horren arabera, hainbat jarduketa egin behar dira

Lekunberri, Azpirotz, Gorriti, Areso eta Leitzan. Horietako batzuk eginda daude: zubi berri bat egin da Areson, herri horretako hainbat bide konpondu dira, autobioako itxiturak konpondu dira...

Une honetan ez gara egiteke daudenetatik bat bera ere egiten ari; hori bai, berrikusi eta eguneratzen ari gara egindako proiektuak, beharizan errealelara egokitzearren.

2.- Zergatik atzeratu dira lan osagarri horiek?

Obrak horiek atzeratu dira, besteak beste, hainbat jarduketa egin ahal izateko jabetza pribatukoak diren lursailak behar zirelako, eta noski, horretarako aurrena jendaurrean jarri behar da proiektua, eta gero horiek desjabetu.

Aurrekontuak horretarako bidea eman ahala egingen dira obra horiek.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko ekainaren 9an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Eguesko Udalarekin Sarrigurengo ekohiria sortzearen lortutako akordioa betetzeko sistema aldatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Eguesko Udalarekin Sarrigurengo ekohiria sortzearen lortutako akordioa betetzeko sistema aldatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko ekainaren 6ko 47 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Sarrigurengo ekohiriaren proiektuaren eta Nafarroako Gobernuak Eguesko Udalarekin aldeztu aurretik hartutako konpromisoen inguruko zenbait gairi buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuak ez du udalez gaindiko eragina duen Sarrigurengo plan sektorialaren exekuzio sistema aldatu. Gaur egun izapidatzen ari da eta berori finkatzera mugatu da Gobernuak. Desjabetzaren alde egin da beste aukeren artean azkarragoa delako.

2. Eguesko Udalarari hainbat aldiz jakinarazi zaio zein den udalez gaindiko eragina duen Sarrigurengo plan sektorialaren edukia, berori prestatzen zihoan heinean. Azkeneko dokumentua egungo tramitea hasi baino hilabete lehenxeago igorri zitzaion aipatutako udalari, haren berri emateko.

3. Eguesko Udalarrentzat sistema honek duen abantaila da azkarragoa dela. Beraz, arinago jasoko ditu probetxamenduko lagapenak, hornidu-

rakoak eta ekipamendukoak eta baita urbanizazio eta eraikuntzen ondoriozko dirusarrerak ere.

4. Nafarroako Gobernuaren ustez ez da komeni bideratzea bi merkataritza gune ludiko handiren eraikuntza, eremu berean eta bata bestearengandik hain gertu. Beraz, bataren alde egin behar da. Dena den, lurraldeari eta hirigintzari begira bi aukerak onargarriak izanik, ematen du egokiagoa dela udalez gaindiko eragina duen Sarrigurengo plan sektorialaren proposamena. Hautapen horrek Burlatako Udalarrentzat aukera ekonomikoak galtzea dakarrenez, bi udalen itxaropenei eta aurretiko konpromisoei kalterik egin gabe bien interesei erantzungo dien itun bat proposatu zaie. Itun hori ez da mugatzen ekonomia edo merkataritzako gaietara. Garrantzizkoak diren bestelako alderdiei konponbidea emateko ere balio behar du, hala nola: udal mugapeak berriz mugatzeko, antolaketaren ondoriozko lurraldea etorkizunean hobeki administratzearen; ekipamendu eta dotazioak ezartzeko, arrazionaltasun eta koordinazio irizpideei jarraituz; azpiegitura komunak eraikitzeke.

5. Nafarroako Gobernuaren iritziz proposatutako itunaren bidez Eguesibarreko Udalarekin 1998an sinatutakoa bete daiteke, eta, hain zuzen ere, betetzeko asmoa du.

6. Nafarroako Gobernuak, une honetan, ez du Eguesibarreko Udalarekin 1998an sinatutako ituna aldatzeko asmorik, eta areago, ez du beharrezkotzat jotzen halakorik egitea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko ekainaren 5ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Herri ondasunak arautzeko egungo sistemari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Carolina Castillejo foru parlamentari andreak herri ondasunak arautzeko egungo sistemari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko ekainaren 6ko 47 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak idatziz erantzuteko galdera egin du herri ondasunak arautzeko egungo sistemari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legean eta hura garatzeko erregelamenduan ezartzen da herri ondasunen aprobetxamendua arautzeko sistema. Lege horren izpirituak

izaera sozial nabarmena du; izan ere, errenta apalagoko familia-unitateei ematen die lehentasuna herri aprobetxamenduak esleitzerakoan. Toki entitateak dira, herri ondasunak administratzen dituzten aldetik, legeak arlo hori dela-eta xedatzen duena aplikatzeko ardura zuzena dutenak.

2. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ez.

3. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 174. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, baldintza bat jarriko du herri ondasunak hobetzeko inbertsioak egiteko: nagusiki nekazariak direnei esleitzea toki entitateek.

4. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren ustez, bai.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko ekainaren 13an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Ilundaingo Haritz Berri granja-eskolan egindako laboreei eta lortutako emaitzei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak Ilundaingo Haritz Berri granja-eskolan egindako laboreei eta lortutako emaitzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko maiatzaren 29ko 45 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ilundaingo Haritz Berri granja-eskolan egindako laboreei eta lortutako emaitzei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Galderak egindako ordena berean erantzungo ditut:

1. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Nafarroako Foru Diputazioaren ondarekoa den Ilundaingo finka kudeatzen du, esperimendazio jarduerak egiteko, bai zuzenean, bere kabuz, bai "ITG Agrícola" izenekoaren bidez, 50eko hamarkadatik hasita, hain zuzen ere sortu zenetik. Egiten diren jardueren erakusgarri, azken bost urteotan egindakoei buruzko informazioa erantsi dut.

2. Departamentuak "ITG Agrícola" izenekoaren bidez egiten duen lana Haritz Berri granjaren egungo lanarekin bateraezina ez izateaz gain, granjaren beraren kokalekua eta lokalen eta lursailen okupazioa bera ere Nekazaritzako Departamentuak eskuratu zion 1984an, eratu zenean. Laguntza horren izpirituaren erakusgarri dugu

behin baino gehiagotan eraikin eta lursailak lagatzea, bai eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak "Haritz-Berri" granjako argiaren gastuak ordaindu izana –1999an 493.918 pezetara iritsi ziren–.

3. Arazoa sortzen da finka berezko helburuetarako erabiltzea ezinezko egiten duten proposamenak aurkezten direnean. Kontuan hartu behar da Ilundain dela Nafarroako Gobernuak nekazaritzako esperimendazioak egiteko erabil dezakeen finka bakarra eta Foru Komunitateko lehorreko labore freskoen adierazgarri dena ere. Bestalde, esperimendazioko finkak, aire zabaleko benetako laborategiak direnak, ez dira inprobisatzen; aitzitik, bere ezaugarriak urtetako lanaren ondorioz lortzen dira. Gainera, Foru Komunitateko ondarearen zati izateak zenbait saiakuntza egiteko aukera ematen du, ekoizpena arriskuan jartzen bada ere edo jarraikortasuna behar dutenean ere.

Nabarmendu daitekeen beste ezaugarrietako bat da esperimendaziok mikrolurzatiaren kontrolatutako saiakuntzetan banatzen direla eta gero, azalera handiagoko lurzatiara pasatzen direla, txandaka. Lurzati horietan ere teknika berriak aplikatzen dira, eta nekazariari berrikuntzak tokian bertan erakustea ahalbidetzen dute.

Horrek guztiak esan nahi du esperimendaziok behar diren lur azalerak Ilundaingo finkak dituenak baino handiagoak direla.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko ekainaren 15ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilari: Ignacio Javier Martínez Alfaro

(Oharra: Aipatutako informazioa foru parlamentarioen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

Autonomia erkidego mugakideetako gobernuekiko lan dinamikari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak autonomia erkidego mugakideetako gobernuekiko lan dinamikari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko ekainaren 12ko 49 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du autonomia erkidego mugakideetako gobernuekiko lan dinamikari buruz. Hona, Nafarroako Par-

lamentuko Erregelamenduko 190. artikulua xedatuari jarraituz, Nafarroako Gobernuaren erantzuna:

1.- Bai.

2.- Ez dago datarik. Erkidegoen interes komunei erantzuteko gobernuek konpromisoak hartu behar badituzte zehaztuko dira.

3.- Ez.

4.- Arestiko erantzunak honetarako ere balio du.

5.- Ia-ia osorik konponduta daude, baina behin betikoz konpontzen saiatzen ari gara; halere, jakin badakigu herritarrei eman beharreko zerbitzuen inguruko arazoak ez direla sekula ere konpontzen haiek asebetetzeko moduan.

Iruñean, 2000ko ekainaren 19an

Miguel Sanz Sesma

Garraioaren Hiriko erreka hobetu eta estaltzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Garraioaren Hiriko erreka hobetu eta estaltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko maiatzaren 10eko 39 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteko

galdera egin du Garraioaren Hiriko erreka hobetu eta estaltzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Bai, Gobernuak Garraioaren Hiriko erreka hobetu eta estaltzeko asmoa du, Kontratuei buruzko Legeak ezarritako epean hain zuzen ere.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko ekainaren 22an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Nafarroako Gobernuak lur kutsatuen inbentario berekia duen jakiteko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Nafarroako Gobernuak lur kutsatuen inbentario berekia duen jakiteko galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko maiatzaren 23ko 42 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera bat egin du, Nafarroako Gobernuak lur kutsatuen inbentario berekia duen jakiteko. Hona hemen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Ingurugiro Departamentuak 1997. urteaz geroztik du lurra kutsa dezaketen jardueren behin-behineko inbentarioa, Nafarroako Gobernuak arlo honetan bete beharreko jarduketak planifikatzeko oinarritzko agiria izan dadin egina.

2.- Hondakinak Kudeatzeko Atalari dagozkionak, arlo horretako administrazio unitate eskuduna baita.

3.- Herrilan eta Garraio Ministerioko Ingurugiro Politikarako Zuzendaritza Nagusiak 1991 eta 1994an eginiko inbentarioek nola Departamentuak berak 1997an eginikoak ez zuten inolako lege euskarririk lur kutsatuaren definizioari dago-kionez, eta hori dela eta, beste herrialdeetako erreferentziak erabili ziren. Hondakinei buruzko

apirilaren 21eko 10/1998 Legea aldarrikatu arte ez zen zehaztu lur kutsatuaren kontzeptua, hau da, ordurarte ez ziren finkatu Estatuak, lurren izaera eta erabileren arabera onartu beharreko irizpide eta estandarrak. Irizpide horietan oinarriturik, autonomia erkidegoetako organo eskudunek lur kutsatuen gaineko deklarazio formala, haien mugaketa eta inbentarioa egin beharko dituzte. Irizpide eta estandar horiek oraindano onartu ez direnez, ez dago lur kutsatuaren definiziorik legetan eta, beraz, Nafarroan dagoen lur kutsatuen kopuruari buruzko baieztapen oro funsgabea da.

Horrenbestez, 1997ko inbentarioak lurra kutsa dezaketen jarduera guztiak biltzen baditu ere, gerta liteke, Gobernuak behin aipatutako irizpide eta estandar horiek onetsirik, lur kutsatu gehiago agertu eta dagoeneko sarturik dauden beste batzuk kanpoan gelditzea.

4.- Kutsadura atzeman den lurren titularretako batzuekin solasaldiak izan ditugu, eta batekin lan-kidetza hitzarmen bat izanpetu da lur kutsatuetatik bi lehengoratzeko. Beste bi tokitan, titularrak kutsadura desagertarazteko lanetan ari dira.

5.- Egutegia Hondakinei buruzko 10/1998 Legeak ezarriko du, baina horrez ez ditu baztertzen egungo inbentarioan ageri diren lurren erabilerara aldatuz gero beharrezkoak izan daitezkeen jarduketak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko ekainaren 20an.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros.

Altsasuko Galdan, SA enpresak isuritako ke toxikoei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Altsasuko Galdan, SA enpresak isuritako ke toxikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko ekainaren 6ko 47 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari María Isabel Arboniés Bermejo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Altsasuko Galdan, SA enpresak isuritako ke toxikoei buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Joan den otsailean gertaturiko emisioen ondorioz, enpresaren instalazioen jarraipena egin da. Egiaztatu ahal izan dugunez, labeko gasak hoztu dira eta mahuken irazkiak berritu dira. Erabilitako zuzentze neurrien funtzionamendua egiaztatzeko, enpresari eskatu zitzaion baimendutako kontrol erakunde batek emisioak neurtzeko; erakunde horrek halako jardueretarako indarreko arauak gaitutako entitate independente bat izan behar zuen. Neurketa hori joan den martxoaren 22an egin zen; haren arabera, aztertutako elementu kutsatzaileen parametroak indarreko arauak ezarritako gehieneko mugen azpitik daude.

2. Departamentuak ez du inolako zehapen espedientea ireki; Departamentuak, bestalde, ez du inolako komunikaziorik jaso galderan aipatzen den salaketari buruz. Betiere, Jarduera Sailkatuei

buruzko Erregelamenduak ezartzen du zehatzeko ahalmena, lehenbizi, salatutako jarduera kokatuta dagoen udaleko alkateak duela.

3. Nafarroako Gobernuak, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko Ingurugiro Kalitatearen Zerbitzuaren bitartez, Galdan, SA enpresaren instalazioak gehiago begiratzen ditu, eta aldizka ikuskatzeko bisitaldiak ezarri ditu, zuzentze neurrien funtzionamendu egokia in situ egiaztatzeko.

Aldi berean, enpresari eskatu zaio baimendutako kontrol erakunde batek aldizka isurketen neurketak egiteko.

4. Hona baimendutako kontrol erakunde bateko langile tekniko adituek, instalazioa funtzionamendu normalean ari zela, isurketen gainean egindako azken neurketaren emaitzak –zuzentze instalazioak konpondu ondoren egindako neurketa da–:

	Isurketaren batez besteko baloreak	Arauen arabeko gehieneko baloreak
Partikula solidoak	39,6 mg/Nm ³	150 mg/Nm ³
Azido klorhidrikoa	4,18 mg/Nm ³	460 mg/Nm ³
Nitrogeno oxidoak	7,3 ppm.	300 ppm

Horrenbestez, aplikatzekoak diren legeak kon-tuan harturik, Galdan SAren labe birakariak botat-ako gasek ez dituzte ezarritako mugak gaindi-tzen.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-mentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko ekainaren 26an.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros.

Trafikoaren gaineko eskumenak eskuratzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak trafikoaren gaineko eskumenak eskuratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko apirilaren 26ko 35 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko uztailaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak idatziz erantzuteko galdera egin zuen trafikoaren gaineko eskumenak eskuratzeari buruz, eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2000ko apirilaren 17ko bilkuran onartu zuen izapidetzeko. Hartara, hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroak trafikoaren gaineko eskumenak eskuratu ahal izateko, Estatuak ez du ezarri baldintzatzat Nafarroako ordezkariak onartu behar izatea gaur egun gure komunitatean bide-segurtasunaren arloan diharduten Guardia Zibilearen agenteak –hala nahi badute– Foruzaingoan sartzeko aukerari buruz.

2. Nafarroako Gobernuaren eta Administrazio-ko langileen ordezkarien artean duela gutxi bukatu den negoziazio kolektiboan ez da hitz egin Foru Komunitatean trafiko arloan diharduten Guardia Zibileko agenteak –hala nahi badute– Foruzaingoan sartzeko aukerari buruz.

3. Foru Komunitateak eskumen hori erabiltzeko beharrezko dituen giza baliabideak –kasu honetan, Guardia Zibileko agenteak–, baliabide materialak eta aurrekontukoak transferitzea, hala-

korik gertatuko bada, transferentzien Batzorde Mistoaren erabakiz eta zerbitzuak eskualdatzeko beharrezko Errege Dekretuaren bidez eginen da, betiere, Transferentziei buruzko Lege Organikoak xedatutakori jarraituz.

4. Legezketasun eta berdintasunari zorrozki begiratzen badiogu, diskriminazioa sortzen da ezkontza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo gainerako egora pertsonal edo sozialen ondorioz. Ez da horrelakorik gertatzen, ordea, administrazio publiko baten funtzionarioak beste administrazio batera eskualdatzearen ondorioz, aurreko idatz-zatian aipatutako prozedurari jarraitzen bada eta legezketasun printzipioa zorrotz begiratzen. Beraz, diskriminazioaz baino, egokiagoa deritzot aukerez hitz egiteari.

Zentzu horretan adierazi nahi dut giza baliabideen transferentzia ahalmen eta eskumen gehiago jasotzearen ondorio zuzena dela; izan ere, horiek osoki eta eragingarritasunez baliatu ahal izateko, beharrezkoa da giza baliabide eta baliabide material gehiago edukitzea.

Beraz, ondoriozta daiteke Foruzaingoan sartzeko edo barne igoerarako aukeren gradua asko hobetzen dela Foru Komunitateak trafikoko eskumen exekutiboak bereganatzearekin; horrek ez du eragozten, egunen batean, Guardia Zibileko zenbait agentek Nafarroako Foruzaingoan sartzeko aukera izatea.

Aipatutako arrazoiengatik, beraz, transferentzien prozesu horretan ez da antzematen inolako tratu diskriminatzailearik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko ekainaren 27an

Lehendakaritza, Justizi eta Barne kontseilaria:
Rafael Gurra Induráin

Aurrekontuko dirulaguntzak jaso ez dituzten hezkuntza, osasun eta gizarte ongizatearen alorretako elkarteei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak aurrekontuko dirulaguntzak jaso ez dituzten hezkuntza, osasun eta gizarte ongizatearen alorretako elkarteei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko ekainaren 6ko 47 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko uztailaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du aurrekontuko dirulaguntzak jaso ez dituzten gizarte alorretako elkarteei buruz. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluari eta ondokoei jarraituz, hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

1.- Hezkuntza, osasun eta gizarte ongizatearen alorretako zer elkartek ez dituzte jaso –aurrekontu-lerro berekia izan ala ez–, maiatzaren hasieran, 2000ko aurrekontuetako dirulaguntzak?

Nafarroako Gizarte Ongizate Institututik dirulaguntzak jasotzen dituzten elkarte guztiek jaso dute 2000ko ekitaldiari dagokion zatia.

2.- Nafarroako Aurrekontu Orokorretan aurrekontu-lerro berekia duten elkarteetatik, zeinek jaso dute Aurrekontuei buruzko Legean esleitua dutena baino diru gutxiago, edo zeini proposatu zaio halakorik? Denek jaso dute Aurrekontuei buruzko Legearen bidez esleitu zaien zenbatekoa?

Ez zaio aurrekontu-lerro berekia duen inongo elkarteri proposatu Nafarroako Aurrekontu Orokorretan esleiturik duen zenbatekoa gutxitzea.

3.- Zertan oinarritzen da Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentua 2000ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legea ez betetzeko eta ANASAPS elkarteari esateko Parlamentua “erratu egin dela” eta “bere asmoa ez zela” Parlamentuak onetsi eta 2000ko Aurrekontuei buruzko Legean

jasotako zuzenketan azaltzen den zenbatekoa esleitzea?

Departamentuak ez du 2000ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legea urratu.

4.- Etxez etxeko laguntza emateko programaren barruan 80 gaixo kroniko artatzen dira eta gainera itxaron zerrenda bat dago –Nafarroan 5.000 gaixo kroniko baino gehiago dago–. Hasierako aurrekontua uztailean agortuko da. Zer konponbide emanen dio Nafarroako Gobernuak arazo larri horri?

Argi eta garbi ikusi da Parlamentuak 2000ko aurrekontuetan onetsitako kontusaila, 12 milioi pezetakoa, ez dela nahikoa beharrei aurre egiteko. Beraz, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak asignazio hori zabaldu beharko du aurrekontuko beste kontusail batzuen kargura, laguntza hori bermatuko bada.

Hori guztia jakinarazi dizut, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2000ko ekainaren 23an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari María Isabel Arboniés Bermejo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du aurrekontuko dirulaguntzak jaso ez dituzten hezkuntza, osasun eta gizarte ongizatearen alorretako elkarteei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Kultur arloko jarduerak sustatzen dituzten elkarteentzako dirulaguntzei dagokienez, arte eta kultur entitateekiko hitzarmenak arautzen dituen azaroaren 30eko 603/1999 Foru Dekretuak ezarritakoari begiratu behar zaio. Foru Dekretu hori Hezkuntza eta Kultura Departamentuak eta Nafarroako arte eta kulturaren munduan garrantzia berezia duten entitateek elkarren arteko hitzarmenak sinatzeko behar diren oinarriak onesten dituen Hezkuntza eta Kultura abenduaren 20ko kontseilariaren 483/1999 Foru Aginduaren bitartez garatu zen 2000ko deialdirako; foru agindu horren 5.2 puntuan ondokoa ezartzen da: “Hitzarmen

bakoitzean zehazten diren epeetan pagatuko dira dirulaguntzak” (oro har 3 ordainketatan, % 50, % 20 eta hitzarmenaren likidazioa, hartan ezarritakoa bete ondoren).

Dirulaguntzak adjudikatzeko foru aginduetan ezartzen da ordainketak hitzarmen berezi bakoitza arautzen den arau-testua sinatu ondoren eginen direla (salbuespen bakarra Eusko Ikaskuntza da, zeinarekin bost urterako akordio marko bat sinatu baitzen, betiere kasuan kasuko kontusail izendunean horretarako dirua badago; dirulaguntza hori urtero onesten da Kultura zuzendari nagusiaren ebazpen batez).

Aurrekoa kontuan harturik, 2000 urteko dirulaguntzak hartuko dituzten 31 elkarteetatik, maiztaren hasieran, ondokoek baizik ez zuten % 50 kobratua: Pablo Sarasate Fundazioa, Nafarroako Antzerki Eskola eta Eusko Ikaskuntza. Hala eta

guztiz ere, une hauetan, dirulaguntzen % 50 ordaintzea izapidatuta dago kasu guzti-guztietan (hitzarmen bakoitza arautzeko testuak sinatzea, lehenbiziko ordainketa egiteko ezinbesteko baldintza dena, aldeek horretarako duten prestasunaren menpe gelditzen da).

2. Kontusail izenduna duten elkarteetako bakarrak ere ez du laguntza txikiagoa jaso 2000ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorretan ezarritakoa baino.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko ekainaren 29an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

SPI Navarra Virtual, SA sozietatea eratzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak SPI Navarra Virtual, SA sozietatea eratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko ekainaren 12ko 49 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko uztailaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du SPI Navarra Virtual SA sozietateari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Jakin al du Nafarroako Gobernuak SPI Navarra Virtual SA sozietatea eratu dela?

Foru Gobernuak ez du SPI Navarra Virtual SA sozietatea eratu delako berririk jaso formalki.

2. Eman al du Nafarroako Gobernuak enpresa hori eratzeko jarraibiderik, enpresa publikoetan dauzkan ordezkarien bitartez edo Gobernuak partehartzea duen beste enpresa batzuen bitartez?

Nafarroako Gobernuak ez du inolako erabakirik hartu ez eta jarraibiderik eman horren inguruan.

3. Baiezkoan, zein izan dira Nafarroako Gobernuak izan dituen arrazoiak enpresa publikoen bitartez edo bera partaide den enpresen bitartez aipatu enpresa eratzeko?

4. Zein da enpresa horren helburu soziala?

5. Zein da haren kapital soziala?

6. Ba al dago Navarra Virtual SA enpresaren administrazio kontseiluan edo bestelako organo sozialetan enpresa publikoetako edo Nafarroako Gobernuak parte duen enpresetako zuzendaritzari loturiko pertsonarik?

7. Nor dira enpresa horren administrazio kontseiluko partaideak?

8. Ba al dago enpresa horretan bestelako organo sozialik? Nork osatzen dituzte?

4, 5, 6, 7 eta 8. galderak batera erantzungo ditut.

SPI Navarra Virtual SA enpresa pribatua da eta Nafarroako Gobernuak haren helburu sozialari, kapitalari, Administrazio Kontseiluari eta abarri buruz dakiena komunikabideek zabalduakoa da; beraz, ezin die egindako galderari erantzun.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko ekainaren 28an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Aranguren eta Eguesibarko udalez gaindiko planari aurkeztutako alegazioen ebazpenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Aranguren eta Eguesibarko udalez gaindiko planari aurkeztutako alegazioen ebazpenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko ekainaren 12ko 49 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko uztailaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Zoliako hiri bioklimatikoarekin zerikusia daukaten kontuei buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Galderak aipatzen duen agerraldiaz geroztik, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiaren jarduerak, ohiko jardueraz gainera, honako ardatz hauek izan ditu: Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Legearen Erreforma garatzeko proiektuak, 2001-2004 Etxebizitza Plan berria, Sarriguren Hiri berriaren proiektua eta Lurralde eta Hirigintza Informazio Sistema.

Hori dela eta, proiektuan parte hartzeko balizko interesa dutenekin zenbait bilera izan bada ere, erabaki dugu ekimen honi buruzko lana heldu den urteko lehen seihilekorako uztea. Zoliako Hiri Bioklimatikoaren oraindik ere interes handiko proiektua da Gobernu honentzat, eta legegintzaldi honetan zehar ekinen diogu, izanen dugu-eta denbora aski hura garatzeko.

Horiek guztiak kontuan harturik, galderako hurrengo puntuei erantzunen diegu:

Zoliako Hiri Bioklimatikoaren udalez gaindiko plan sektorial bat onesteko hasitako prozedura etenda dago unen honetan; beraz, aurkeztutako alegazioei erantzuteko erabakirik ez da hartu.

Halaber, 2, 3, 4, 5 eta 6. puntuetan aipaturiko ekimenetako bakarra ere ez da garatu, guztietarako ekimen zehatzak egonen baitira heldu den urteko lehen seihilekotik aurrera.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko ekainaren 29an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Nafarroako Gobernuaren argitalpenen fotokonposizio eta filmazio lanen (1, 2, 3, 4 eta 5. sortak) esleipenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako Gobernuaren argitalpenen fotokonposizio eta filmazio lanen (1, 2, 3, 4 eta 5. sortak) esleipenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko ekainaren 6ko 47 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko uztailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 1999ko abenduaren 13ko Ebazpenari buruz –haren bidez, Paginación Informática, S.L.ri esleitu zitzaizkion Nafarroako Gobernuaren 2000ko argitalpenen fotokonposizio eta filmazio lanak (1, 2, 3, 4 eta 5. sortak)–. Hona Lehendakaritza eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1.-Zer irizpide objektibo ezarri ditu Departamentuak ebazpenean aipatzen den lehiaketara aurkeztu ziren enpresen balioespena egiteko?

Lehiaketa publikoa arautu zuen administrazio klausula partikularren pleguan jasotzen diren irizpide objektiboak aplikatu dira. Plegua, baldintza teknikoaren pleguarekin batera, Lehendakaritzako idazkari nagusiaren ebazpen baten bidez onetsi eta 1999ko azaroaren 3ko 138. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Administrazio klausula partikularren plegu horretan aipatzen denez, ondokoak izan dira balioespen irizpideak:

- Eskaintza ekonomikoa: 70 puntu.
- Eskaintzaren balio teknikoa: 20 puntu.

– Eskaintako laguntza teknikoa: 5 puntu.

– Behin-behineko langileak plantilla osoaren % 5 baino gutxiago izatea: % 5.

Eskaintza ekonomikoa balioesterakoan, gehieneko puntuazioa eman zitzaion lote bakoitzean eskaintzarik merkeena egin zuen enpresari, eta proportzioaren arabera –txikitik handira– kostuak gora egin ahala.

“Eskaintzaren balio teknikoa” ataleko puntuazioan, aurkeztu ziren enpresek aitortutako giza-eta gauza-baliabideen ebaluazioa egin zen lehen-dabizi.

“Eskaintako laguntza teknikoa” ataleko puntuazioa egiteko, aintzat hartu zen ea enpresek hobekuntza tekniko osagarriak (komeni zirenak zein egin zitezkeenak) eskaintzen zituzten ala ez.

Enpresetako langile finko eta behin-behinekoen atalean, eman zitezkeen bost puntuak eman zitzaizkien enpresei, baldin eta behin-behineko langileak plantilla osoaren % 5 baino gutxiago direlako aitortpena aurkeztu bazuten.

2.- Zer enpresak jo dute aipatu esleipenetara?

Hiru enpresa aurkeztu ziren lehiaketa publiko-ara atera ziren bost sortak eskuratzeko. Hona:

– Gráficas Pamplona, S.L.

– Paginación Informática de Navarra, S.A. (Página)

– Urdaniz Preimpresión, S.L.

Pretexto, Sozietate Irregularrak, berriz, administrazio klausula partikularren pleguan eskatutako agiriak aurkeztu zituen, baina 2. sortarako baino ez zuen egin eskaintza ekonomikoa, deialdiari jarraikiz bazuen-eta horretarako eskubi-dea. Hortaz, sorta horretan soilik eman zitzaizkion behar bezala eta osotara puntuak.

3.- Zenbat puntu eman zaio enpresa bakoitzari kontzeptu bakoitzarengatik?

1. sorta:	- Página.....	68,87 + 18 + 0 + 0 = 86,87 puntu
	- Gráficas Pamplona	38,48 + 15 + 0 + 5 = 58,48 puntu
	- Urdániz Preimpresión	70 + 8 + 0 + 0 = 78 puntu
2. sorta:	- Página.....	69,90 + 18 + 0 + 0 = 87,90 puntu
	- Gráficas Pamplona.....	26,85 + 15 + 2 + 5 = 48,65 puntu
	- Urdániz	70 + 8+0+0=78 puntu
	- Pretexto	49,48 + 10 + 0 + 5 = 64,48 puntu
3. sorta:	- Página.....	70 + 18 + 0 + 0 = 88 puntu
	- Gráficas Pamplona	66,85 + 15 + 0 + 5 = 86,85 puntu
	- Urdániz	69,08+ 8 + 0 + 0 = 78,08 puntu
4. sorta:	- Página.....	70 + 18 + 0 + 0 = 88 puntu
	- Gráficas Pamplona	28,10 + 15 + 0 + 5 = 48,10 puntu
	- Urdániz	31,72 + 8 + 0 + 0 = 39,72 puntu
5. sorta:	- Página.....	65,38 + 18 + 0 + 0 = 83,38 puntu
	- Gráficas Pamplona.....	38,08 + 15 + 0 + 5 = 58,08 puntu
	- Urdániz	63,94 + 8 + 0 + 0 = 71,94 puntu

4.- Zer motibazio darabil Departamentuak lan horiek aipatu enpresari esleitzeko?

Lehendakaritza eta Barne Departamentuak –administrazio klausula partikularrean jasotzen diren irizpide objektiboak aplikatu eta sorta bakoitza esleitzeko proposamena egin zuen Kontratazio Mahaiak zehazki– enpresek aurkeztutako dokumentazioa eta haien eskaintza ekonomikoak aztertu zituen, eta atal bakoitzean enpresa horietako bakoitzari puntuak eman zizkion.

Hauxe izan da lan-sorta bakoitza esleitzeko Departamentuak izan duen motibazio bakarra: enpresa harztaileak puntuaziorik altuena izatea, aipatu irizpide objektiboek jarraikiz lortutakoa zenbatuta.

Hori guztia jakinarazi dizut izan beharreko ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2000ko ekainaren 27an

Lehendakaritza eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Biltzar jauregi eta auditorioaren obrei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak biltzar jauregi eta auditorioaren obrei buruz egingako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko ekainaren 12ko 49 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko uztailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du Biltzar Jauregi eta Auditorioaren obrei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Galderan terminologia-nahasketa dago; izan ere, ematen du nahasi egiten direla San Anton bastioia eta Santa Teresa luneta, baina bi elementu ezberdin dira. Santa Teresa luneta desmuntatu egin zen, haren kontserbazio egoera penagarria baitzen; gainera, haren eraikuntza-sistema San Anton bastioiarena ez bezalakoa eta hura baino eskasagoa zen.

San Anton bastioian ipar-hormatalaren zati bat desmuntatu da, oso silarri-errenkada gutxi zituen; izan ere, mende hasieran kuartelak eraikitzean txikitu egin zuten bastioiaren zati hori guztia, izkina barne.

Obra horiek egin aurretik baimena eman du Vianako Printzea Erakundeak, eranskin gisa doazen ondokoen bidez:

– 566/1999 Ebazpena, azaroaren 25ekoa, Vianako Printzea Erakundeak-Kultura zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioaren orubean –Iruña– hondeaketa lanak egiteko baimena ematen duena.

– 11/2000 Ebazpena, urtarrilaren 14koa, Vianako Printzea Erakundeak-Kultura zuzendari nagusiak emana, Construcciones Olloquiegui S.A.ri Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioa eraikiko den orubean agertu diren arkitektura-egiturak hein batean altxatzeko baimena ematen diona.

– 109/2000 Ebazpena, martxoaren 6koa, Vianako Printzea Erakundeak-Kultura zuzendari nagusiak emana, Construcciones Olloquiegui S.A.ri Iruñeko Gotorlekuko kontra-ezpona eta Santa Teresako errebelinaren hondakinak altxatzeko baimena ematen diona.

– Ondare Historikoaren zerbitzuburuak 2000ko apirilaren 17an egindako txostena.

– 268/2000 Ebazpena, Vianako Printzea Erakundeak-Kultura zuzendari nagusiak emana Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioaren proiektua baimentzen duena.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko ekainaren 29an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

(Oharra: Aipatu agiriak foru parlamentarioen esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

Eskualdeko hirigintza arauen tramitazioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak eskualdeko hirigintza arauen tramitazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko ekainaren 12ko 49 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko uztailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du eskualdeko hirigintza arauen tramitazioari buruz eta Eraikuntza Antolatzeari buruzko Legearen egokitzeaz eta ondorioez. Hona Lehendakari-tza eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Ebroko Erriberako eta Tuterako Erriberako Eskualdeko Hirigintza arauak aldi berean ari dira prestatzen. Gaur arte, honakoak izan dira bi espediente horietan gauzatutako jarduketak:

Bakoitzaren aurreproiektuaren erredakzioa; bi proiektuen jarraipen batzordeak eratzea. Kasuan kasuko batzordeetako lehen bilerak egin dira, Tuteran eta San Adriáñen, azalpenak emateko aurretik eginez iren 8 bilerez gainera. Aurreproiek-

tuari buruzko iradokizunak egiteko epea zabaldu da.

Hona egiteko geratzen diren tramiteak:

Iradokizunei buruz Jarraipen Batzordeak txostena ematea. Gobernuak hasiera batean onestea. Jendaurreko informaziorako epea. Alegazioei buruzko txostena eta haien ebazpena. Jarraipen txostena eta jarraipen batzordea.

Prozesu zail hori 2002 urtean bukatuko da.

2) Lurralde Plangintzarako Atalean egun dau-den giza baliabideekin (2 teknikari) eta hark duen lan-zama orokorra kontuan harturik, ezinezkoa da arlo guztietako EHAen baterako erredakzioa behar bezala sustatu eta koordinatzea.

Proiektuak erredaktatzeko prozesuan aurrera-pen maila jakin batetik aurrera baizik ezin izanen zaio ekin aurreproiektu berriak idazteari, betiere plantilla handitzeko baldintzarekin.

Ikuspegi horretatik (hau da, plantilla zabaldu-ta), Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zer-bitzuak gainerako arloetako EHAei buruzko pro-gramazio bideragarri bat prestatu du. Programazio hori Nafarroako Gobernuaren Epe Ertaineko Plan Ekonomikoan sartu da; hori dela eta, jadanik lanak burutzeko aldi baterako aurreikuspen bat badago. Hona Epe Ertaineko Planean jasotako denbora- eta finantza-koadroa eta programazioa-ren irudi grafikoa:

Epe Ertaineko Plan Ekonomikoa. Inbertsio Errealak (milioi pezetatan)

Jarduera: 302, Lurraldearen Antolamendua						
Proi.	Proiektua	2000	2001	2002	2003	Gainerakoa
04	Iruñeko EHA-ak	–	–	–	–	–
05	Ebroko Erriberako EHA-ak	4,3	–	5,4	–	–
06	Tuterako Erriberako EHA-ak	4,4	–	5,4	–	–
07	Sakanako EHA-ak	–	–	–	–	35,0
08	Pirinioko ibarretako EHA-ak	–	–	15,0	10,0	10,0
09	Estellerriko EHA-ak	–	15,0	10,0	10,0	–
10	Kantauri aldeko ilbarretako EHA-ak	–	–	–	–	35,0
11	Pirinio aurreko ibarretako EHA-ak	–	–	15,0	10,0	10,0
12	Tafallako EHA-ak	–	15,0	10,0	10,0	–

3) Eraikuntza alorreko foru arauak Eraikuntza Antolatzeko Legeari egokitu behar zaizkio; horretarako, Nafarroako Gobernuak foru dekretu baterako proiektu bat prestatu du "eraikuntzaren liburuaren" edukia eta hura nahitaez eskatzeari buruz, Eraikuntza Antolatzeari buruzko Legeak ezartzen duen moduan. Foru Dekretuaren proiektu hori Nafarroako Kontseiluari igorri zaio, behar den txostena eman dezan.

Eraikuntza Antolatzeari buruzko Legeak eduki zibil eta administratiboak ditu, oro har Nafarroako arauekin bat datozenak. Eduki administratiboak dagokienez, "kontrol entitateak" kreditatzeko balizko instrumentazio bat aztertzen ari da; haiek "eraikuntzaren agentetzat" jotzen ditu legeak. Halaber, babes ofizialeko etxebizitzaren behin betiko kalifikazioa emateko eta etxebizitza libreetako "bizigarritasun zedula" emateko, obra jasotzeari buruzko aktaren" kopiak ekarri behar izatea aztertzen ari da.

Eraikuntzari buruzko Legeak nahitaez lehenbiziko hamar urteetan eraikuntzen egituraren egon-

kortasunetik ondoriozta daitezkeen arriskuak aseguratzeke beharra ezartzen du. Horrek diru-aurrezki bat dakarkie promotoreei, hain zuzen ere etxebizitzaren eraikuntza jasaten dituzten egitura-kalitatei dagokiena, hain zuzen ere aseguratzaileek ordainduko baitute, baina bi gastu ere ekarriko ditu berekin: aseguru polizena eta aseguratzaileek haiek sinatzeko eskatzen dituzte txosten teknikoena. Horren eragin ekonomikoa erlatiboki handiagoa izanen da promozio txikietan. Oro har, uste da babes ofizialeko etxebizitzaren prezioa % 1 garestituko duela horrek; etxebizitza libreen garestitzea, zenbaki absolutuetan, babes ofizialeko etxebizitzaren antzekoa izanen da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 181. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko ekainaren 29an.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros.

Nafarroako Gobernuko giza baliabideak kudeatzeko sistema integralaren mekanizazioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak Nafarroako Gobernuko giza baliabideak kudeatzeko sistema integralaren mekanizazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko ekainaren 12ko 49 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko uztailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuko giza baliabideak kudeatzeko sistema integralaren mekanizazioaren exekuzioari buruz. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek jarraituz, hona Nafarroako Gobernuko Lehenda-

karitza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. galdera

Atzerapen egun bakoitzeko kontratuan aurreikusitako 25.000 pezetako zehapena bete al da, kontuan harturik kontratua betetzeko epea 1999ko urriaren 5ean bukatu zela?

Erantzuna

Ez da bete kontratuan ezarritako zehapena. Kontratuaren hirugarren klausulak ezartzen du:

"Adjudikazio hartzaileari egotz dakizkikeen arrazoiengatik aurkezpen epea betetzen ez bada, Administrazioak Klausula Administratibo Partikularren Pleguan xedatutako zehapenak ezarri ahalko ditu"

"Nolanahi ere den, Administrazioak egokitzen jotzen duen luzapena eskaini ahalko dio kontratistari, horretarako bidezko arrazoiak daudenean. Horrek ez du eragotziko klausula honetan ezartzen diren zehapenak ezarri ahal izatea."

Zenbait arrazoi izan dira. Adibidez:

– Sistema definitzen duten erabiltzaile kopuru handia koordinatzea.

– Erabiltzaileek zeregin bererako erabiltzen zituzten kudeaketa prozesu ezberdinak bateratzea.

– Erabiltzaileak egindako definizioaren konplexutasun handiagoa, Nafarroako Foru Komunitateako Administrazioak egiten duen giza baliabideen kudeaketa kontzepzioaren maila altua dela eta.

Arrazoi horiek proiektuaren planifikazioa zailtzen dute, eta epeen ala kalitatearen artean hautatu beharra dago. Proiektu honen garapenean, Administrazio kudeatzaileen eskaerari erantzuteko behar besteko kalitatea duen produktua bermatzeko bidea lehenetsi da.

2. galdera

2. Zehapen hori zenbat pezetakoa da gaur?

Erantzuna

Ez da zehapenaren zenbatekoa ezarri, aurreko puntuan azaldutako arrazoiengatik.

3. galdera

3. Zenbat diru kobratu du "El Corte Inglés SA" enpresak eta noiz kobratu du?

Erantzuna

60.000.000 pezeta, 1998ko ekitaldiari dagozkionak. 1998-12-23an.

55.000.000 pezeta, 1999ko ekitaldiko lehenengo epeari dagozkionak. 1999-7-16an.

4. galdera

4. Nolako emaitzak izan dituzte aurreko martxoan egiteko aurreikusita zeuden nominen frogak eta paraleloek?

Erantzuna

Aurtengo martxoan egiten hasitako frogak, gaur arte eman dituzten emaitzak kontuan hartuz, datorren abuztuan nominen paraleloen prozesuari ekitea ahalbidetzen dute.

Hona hemen aurreikusten den paraleloen egutegia:

- Abuztua eta iraila. Tuterako Osasun Barrutia.
- Urria, azaroa eta Abendua. Kolektibo guztiak.

Udan, opor garaia izaki, frogak eta paraleloak egiteko dituzten zailtasunak kontuan hartuz, plangintza hori aurkeztu zen Jarraipen Batzordean, 2000ko ekainaren 9an.

Informazio hori Proiektuaren Zuzendaritza batzordeak aurkeztu eta onartu zuen, 2000ko ekainaren 19an.

Paraleloen plangintza funtzionarioen lan eskeragan eraginik ez izateko egin da, bi aplikazioetarako paraleloen denboraldian beraien eginkizunetan aritu behar baitute.

5. galdera

5. Noizko aurreikusi du gobernuak egitura organikoaren eta lanpostuen kudeaketaren moduluak ezartzea?

Erantzuna

Egitura organikoaren eta lanpostuen kudeaketaren moduluak, pertsona, nomina, egutegi eta txanden eta aurrekontuaren jarraipen moduluekin batera, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dute eragina.

Egitura organikoaren eta lanpostuen kudeaketaren moduluak Antolaketa eta Informazio Sistemaren Zuzendaritza Nagusian abiaraziko dira irailan, erabiltzaile mugatu batzuekiko.

6. galdera

6. Zergatik ematen zaio lehentasuna nominen moduluari, pakete integratu bat izaki?

Erantzuna

Ez zaio lehentasunik eman nominen modeloari beste modeloekiko, proiektuaren hasierako definizioa mantentzen baita; alegia, giza baliabideen kudeaketa integratua egitea.

7. galdera

7. Posible al da Nafarroako Gobernuaren nominen sistema indarduna hobetu edo/eta eguneratzea?

Erantzuna

Bai, proiektuaren garapenean gertatu diren nominen errekerimendu guztiak egungo nomina paketeen sistemaren gainean egin baitira, nominak ordaintzeari ezin baitzaio utzi.

Egungo sistemak duen muga giza baliabideen kudeaketa integraleko errekerimenduei erantzun bat ematean datza. Horren froga da sistema hau zuen proiektuaren lehiaketara ez zela inongo lizitatzailerik aurkeztu.

8. galdera

8. Zenbateko kostua izanen luke hobekuntza edo/eta eguneratze horrek?

Erantzuna

Ez da planteatu beste tresna batzuen bila joatea; beraz, ez dakigu bere zenbatekoa. Egungo sistemetara eguneratzea langile berekiekin egiten da edo produktuaren hornitzailearen laguntza puntualarekin.

9. galdera

9. Egin al du Nafarroako Gobernuak auditoretzaren bat adjudikazioari buruz edo proiektuaren funtzionamendua abian jartzeko prozesuari buruz?

Erantzuna

Nafarroako Gobernuak ez du auditoretzarik egin adjudikazioari buruz edo proiektuaren fun-

tzionamendua abian jartzeko prozesuari buruz. Barne mekanismoak, hau da, Jarraipen Batzordea eta Zuzendaritza Batzordea, zeinak Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuak, Hezkuntza eta Kulturakoak, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteriakoak eta Osasunekoak ordezkatzeko baituzte, nahikoak dira proiektua abiarazteko.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2000ko ekainaren 28an

Lehendakari-tza, Justizi eta Barne kontseilaria:
Rafael Gurra Induráin

AHTa dela-eta Aragoiko Gortekin lortutako akordioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak AHTa dela-eta Aragoiko Gortekin lortutako akordioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko ekainaren 12ko 49 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko uztailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du AHTa dela-eta Aragoiko Gortekin lortutako akordioari buruz.

Beste ezer baino lehen, alde zuzeneko azalpen gisa, esan beharra dago joan den maiatzaren 30ean Nafarroako Jauregian egin zen bilerara Nafarroako Gobernuaren ordezkari-tza bat eta Aragoiko Gobernuaren beste bat joan zirela, biak dagokien lehendakaria buru zutela. Beraz, ez da egia Aierdi jaunak hitzaurrean dioena, "Aragoiko Gorteen" ordezkari-tza bati buruz mintzatzean.

Dena den, hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1. Noraino du aztertuta Gobernuak balizko trazadura?

Lehenik eta behin esan behar da trenbideen arloa Estatuaren eskumenekoa dela soilik.

Dena den, Nafarroako trenbide azpiegiturak garatzeko, lankidetzara eta elkarlan handia dago Nafarroako Gobernuaren eta Sustapen Ministerioaren artean.

Horretan oinarrituz, Madril-Zaragoza-Bartzelona arteko abiadura handiko lerroa, Nafarroa zeharkatuz eta euskal "Y" delakoarekin lotuz, Espainia-Frantziako mugarekin lotzen duen eta Nazioarteko zabalera duen Nafarroako abiadura handiko bide-multzoarendako trazadura alternatiboetako buruzko azterlanak egin zen, 1996 eta 1997an.

2. Zein izanen litzateke Europarekiko lotura lehen aipaturiko alternatiba hori gauzatzeko?

Espainia eta Frantzia arteko muga aldeko lotura hori Espainian, Gipuzkoa aldean egitea aurreikusi da, Nafarroako abiadura handiko bidea euskal "Y" delakoarekin lotuz.

Alternatibaren azterlanen aukerako bi trazadura daude: bata Tolosa aldean ukitzen du, eta, bestea, Ordizia aldean.

3. Trenbide tarte hori noraino dago lurraldean definituta?

Aurreko kapituluaren azaldu bezala, gaur egungo definizio maila 1:5000 eskalan eginiko trazadura alternatiboetako buruzko azterlanekoa da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko ekainaren 29an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Altsasuko ingurabideko biaduktuko bi zutoin desarmatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Altsasuko ingurabideko biaduktuko bi zutoin desarmatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko uztailaren 6ko 59 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko uztailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Altsasuko ingurabideko biaduktuko bi zutoin desarmatzeari buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Zergatik eraitsi dira biaduktu horretan lehen egindako bi zutoin horiek?

Ez da inolako zutoinik eraitsi; N-1 errepidearen gaineko bi egituretako tarteko zutoinen sakoneko zimentazioaren (pilotaje bidez egindakoa) gaineko ginbelak eraitsi dira. Eraisteko arrazoia izan da ez dela egin egitura horien kalkulua osatzen duten dokumentu ezberdinetan ezarritakoaren arabera.

2. Nork eman du haiek eraisteko eta berriz eraikitzeke agindua?

Agindua lanen zuzendariak eman du, Administrazioaren teknikari eskuduna baita.

3. Izan al da akatsik haiek egitean eta nori egotzi behar zaio akats hori?

Akatsa, halakorik badago, eraikuntza enpresari egotzi behar zaio.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko uztailaren 18an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--